

2013ko abenduaren 14a | VII. urtea • 344. zbk.
0,50 euro

GAUR8 

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BERTSO ELTZEA SU GALDATAN

Datu praktikoak

ORDUTEGIA

09.00: Ateen irekitzea.
11.00: Goizeko saioaren hasiera.
14.00: Bazkaria. Bizkaia Arena hustu egingo da eta 6. pabiloira joan beharko da. Txartela dutenek han izango dute bazkaria; etxetik eramaten dutenentzat mahaia eta eserlekuak egongo dira. Taberna ere egongo da.
15.00: Ateen irekitzea.
16.00: Arratsaldeko saioaren hasiera.
20.00-20.30: Sari emate ekitaldia.

BERTSOLARIEN ARIKETAK

Goizean: 15 bertso puntuagarri.
-Binaka, gaia emanda, hiru-na bertso zortziko handian.
-Binaka, gaia emanda, hiru-na bertso zortziko txikian.
-Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.
-Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.
-Kartzelako lana: Banaka, gaia emanda, hiru bertso.
Arratsaldean: 10 bertso puntuagarri.
-Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.
-Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.
-Banaka, gaia emanda, hiru bertso.
Buruz burukoa: 10 bertso puntuagarri.
-Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.
-Binaka, gaia emanda, hiru-na bertso zortziko txikian.
-Kartzelako lana:
-Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian.
-Banaka, gaia emanda, hiruna bertso.

Berotik hotzera, eta tartean kabitzen diren guztiak



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Villabona-Amasan hasi zen bidea, bero sapak itotako irailaren 29an. Txapelketarako argitaratutako aldizkariak abaniko, Iker Zubeldiak kantatu zuen bezala, majo igarri genuen nola sentitzen den oilaskoa labean. Maulen amaitu zen azaroaren 30ean, esku-larruek eta bufandek engainatzea lortu ez zuten hotza hezurretan, sudurra gorriegi eta ipurdia hotzegi. Horrelako zerbait sentitu behar du oilaskoak hozkailuan. Berotik hotzera eta hotzetik berora, tartean kabitzen diren sentsazio guztiak pausatu zaizkigu azalean Bertsolari Txapelketaren atzetik gindoazela.

Batzuetan turroia, beste batzuetan pastelak. Mahai gainean ez da falta izaten detaile gozorik. Nola akordatzen den jendea goizeko zortzietatik aulki eta entxufe artean dabilzanekin. Zenbat peto gorri, borondatezko langile, konplizitate ordu. Zenbat hanka txapelketa batentzat. Zer pentsa eman digu lantalde horren talde lanak.

Saioa bukatu eta kazetariengana bere oroigarria non ote zegoen galdezka hurbildu zen bertsolariarekin barre egin genuen, bazuen itxaropena gugan eta guk askorik lagundu ezin. Eta kazetariak buru-belarri lanean ari ginela gerturatu eta ea hurrengo saioa non egokitu ote zitzaion galdetu zuen beste hari ere ez genion kasu handirik egin.

Momentu txarrean hurreratu zen. Barkatuko ote du gure itsuskeria. Haiek, bertsolariak, beti portatu dira elegante gurekin. Eta zer esan gure lana bukatu arte zain eta zaindari izan ditugunei, argindarra, aulkiak edo mahaietako tapete beltza kenduagatik titularrak zorrotzen lagundu digutenei, igande arratsetako etxeratze orduak luzatu eta luzatu.

Hendaiako saiora, bonoa izanagatik, joan ezinda geratu zen laguna, Bidasoa gurutzatzeko beldur. Han eta Maulen baino ezin izan dute txapelketa bertatik bertara gozatu beste hainbestek. Eta finalera joan ezinda geldituko dira beste milaka eta milaka. Txapelketak oso garbi dauka lurraldetasuna, badaki non marraztu gure herriaren mugak. Lege arrotzek ebaki egiten dute Euskal Herria; txapelketak mapan jartzen ditu Oion eta Tolosa, Maule eta Barakaldo. Orduak eta desorduek, gertuko errepideak eta urrutikoak, iluna gailendu zaigu nahi baino gehiagotan etxera sartzerako. Baina gustura egin dugu beti bueltako bidea. Zertaz hitz egingo dugu astelehenetik aurrera?

Bertsolariek hatzekin silabak kontatzen dituzte. Gu txapelketa kontatzen saiatu gara. Bat gehiago apuntatuko dugu txapelketen gure atalean, eta oraingoan ere asko gozatu dugu, eta asko ikasi dugu. Eta ikasten jarraitu nahi dugu.

IÑAKI MURUA

EHBE-KO LEHENDAKARIA

Orain bi mende pasa, 1801ean, 4.000 lagun bildu ziren Villabonan Txabalegiren eta Juan Inazio Zabalaren arteko desafioa ikusteko. Gertakariaren bi lekukok, herriko alkateak eta Jose Mendizabal Tolosako apaizak, zifra hori aipatzen badute ere, gehiegizkoa dirudi garaiko demografia kontuan hartzera. Geroztik 2.000 lagun ez azpiko final asko jokatu dira Donostiako Astorian, Victoria Eugenieko edo Baldan, Belodromoaren txanda iritsi zen arte. Belodromoko 8.000 laguneko jendetza, ordea, urria iruditzen zaigu aurtengo finalak sortarazi duen herioa ikusita. Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsotze Elkarte (EHBE) lehendakaria neurtua da hizketan, baina aitortzen du marka guztiak hautsi direla.

Progresioa geometrikoa izan dela esan eta motz geratzen gara.

Progresioa geometrikoa izan da. Nik Belodromoko finalak bizi izan ditut zuzenean. 10.000 laguneko kopurua erabiltzen genuen. Esango nuke kopuruak putzuko joera dugula, gizonezkoak behintzat. Uste dut 8.000 ikusle inguru sartuko zirela Belodromoan, baina handik BECeko 15.000 ikusle-tara jauzi egin genuen. Jende bati esajerazioa iruditzen zaio, baina,

1986an kantatu zuen bere lehen finala, lau argazkilariren aurrean. Gaur ehunka dira, baita ikerlariak ere. Bertsozale milaka batzuk, hala ere, BECetik kanpo geratu dira.

joxean.agirre@gaur8.info

«Saiatu gara
10.000 lagun
gehiago sartzeko
beste leku
baten bila»

ondo pentsatzen jarrita, urtean 1.800 bertso saio egiten dira Euskal Herrian. Batez beste bakoitzean 150 lagun biltzen direla kalkulata, 300.000 bertsozaleko kopurura iristen gara oso behetik jota. Saiotetan mugitzen den bertsozale kopurua kontuan izanik, BECekoa ez zait neurritz kanpoko iruditzen, mugitzen denaren %10 izango da. BECeko irudiek zirrara eragiten digute, baina benetakoa jasotzeko argazkirik ez dugulako, bestela horrek egingo zigukeen zirrara. Hala ere, aitortu beharra dago eguneroko agendan bertsolaritzak izan dituela urte hobeak. Boom famatuaren garaian, 80ko hamarkadaren bukaeratik aurrera, hain ohikoak ziren sei bertsolariko jaialdiak urritu egin dira esate baterako. Jaialdi horiek polikiroldegiak goraino betetzen zituzten. Krisiarekin desagertu egin dira jaialdi handiak.

Dena den, zer gertatu da aurten sarrerekin? Nola esplika daiteke hilabete eta erdi lehenago sarrerak agortzea?

Eragile asko izango ditu fenomenoak. Nik batzuk aipa ditzaket. Garai ilunak ari gara bizitzen eta gizarteak ilusioa eta pizgarriak behar ditu, eta txapelketak ilusioa ematen dio jende bati. Nik hasieratik nuen irudipena aurten jende asko ibiliko zela, zuzendaritzako bileretan behin eta berriz aipatzen genuen eta kanpora ere

saiatu gara hori adierazten. Gertatu dena normala iruditzen zait, nahiz eta min eman didan. Ez dago leku estalirik gisako ekitaldi bat ikusle gehiagorekin antolatzeke. Ez da saiatu ez garelako. Valentziako enpresa batekin harremanetan ibili gara futbol zelai bat estali ote zitekeen aztertzen. Baina oztopo batzuk ikusten genituen: erabat estaltzea zaila da. Eurria egiten badu, zarata saihestea ere oso zaila. Horrelako estadio bat berotzea ezinezkoa da. Eta estaldura hori jartzea diru aldetik oso garestia da. Badakigu leku egoki eta handiago bat aurkitu izan bagenu, 10.000 lagun gehiago sartzeko aukera izango genuela, baina oraindik ez dugu irtenbiderik ikusi. Gainera, elkarte txiki bat gara, diru aldetik estu gabiltza eta erabat seguru egon gabe horrelako pauso bat ematea, suizidioa litzateke. 20.000 edo 25.000 sarrera saltzeko adina eskaera genituen, baina ez dugu leku egokirik ikusle horiek guztiak sartzeko.

Musika jaialdi handiak bezala txapelketa udan egiteak ez al luke abantailarik izango?

Uda da bertso saioen agendan beeenik dagoen sasoa, eta, txapelketarekin, lau urtetik behin bada ere, egutegiak neguan duen hutsunea betetzen da. Txapelketa ez da finala bakarrik, pare bat hila-beteko jarduna da, eta lau urtez



*Lizeaga Sagardoa.
hori gozamina!*

LIZEAGA

Sagardotegia | Astigarraga | ☎ 943 468 290

edan eta eman edatera



behin udako bi hilabeteak bertso agendari kentzea ez zaigu biderik onena iruditzen. Bertsolaritzaren ardatz naturala herriz herri egiten diren saioak dira eta ez genuke hor interferitu nahi. Ez dauden lekuetan saioak sortzeko balio behar du txapelketak.

Ez al luke merezi bi urtetik behin egiteak?

Txapelketak elkarteari diru aldetik egiten dion ekarpena kontuan izanik, horrek onura izugarriak lituzke. Kutxabank eratzearekin gizarte ekintzetarako diru-laguntzak murriztu dira, edo, agortu egin dira, hobeto esateko. Xenpe-lar Dokumentazio Zentroa giltzarria da, gure proiektu nagusienera dela esan daiteke eta urtean 100.000 euroko aurrekontua du, nahiz eta dokumentazio bilketan boluntario pilo batek parte hartu. Txapelketari esker lortzen dugu proiektu hori bizirik mantentzeko behar dugun dirua. Zerbitzu publikoa ematen badu ere, erakunde ofizialeatik ez dugu nahi beste laguntzarik. Egoera gogorra da, baina ezin diogu egoera ekonomikoari lehentasunik eman, ezin gara tranpa horretan erori.

Konparazio azkarrak egiten hasita, euskal kulturaren erdigunean dago bertsolaritza. Musika ere erdigunea okupatu izan du, baina talde on asko larri dabilzan hotsak daude.

Bertsotan ere profesionalak oso bakanak dira. Musika talde batek industria bat behar du atzetik eta guk ez dugu halako egituren beharrik. Bertsolari bati etxeko telefonora edo mugikorrera deitu eta badoa kantatzera. Alde horretatik iraupenerako aukera gehiago ditugu. Bestalde, zein bizi da bertsotatik bakarrik? Andoni Egañak esaten zuen bertsotatik bizitzeko langostino asko jan beharra dagoela jaunartze eta ezkontzetan.

Orain egun batzuk Maialen Lujanbio gaztelerazko egunkari batean egindako elkarrizketan esaten zuen txapelketa bertsolaritzaren baitako azpigenero bat dela.

Ez dakit azpigeneroa ala goigeneroa den, baina jendea engantxatzeko balio du. Atzo bertan gazte



Juan Carlos RUIZ | ARGAKZI PRESS

batzuk eraman nituen autoan eta batek beste bati esaten zion txapelketa bukatzera doala eta ea zer egin behar zuen orain beste lau urtean. «Saio arruntetara joan», esan zion ondokoak, baina saio arruntetan ez duela aurkitzen zer kritikaturik esaten zuen. Zarauzko gaztetxean egiten den Kopla Txapelketa eta Bertso Eguna salbatzen zituen gazte horrek. Maialenek azpijeneroa dela dionean, bertsolariek beste modu batera kantatzen dutela esan nahi du, eta bertsozaleak ere beste modu batera bizi duela bertsoa, arreta gehiagorekin. Nire gazteen elkarrizketari berriro helduz, esango nuke gazte andana erakartzen duela txapelketak.

Txapelketaren formulak badi-tu, dena den, alderdi makur batzuk. Plazan oso onak diren bertsolari molde baten lana ez du neurtzen. Hor dago Iker Zubeldia bat.

Hori egia da. Badago hor arazo bat. Gogoan dut behin Amuriza eta Lopategirekin hizketan «geure errua duk», esaten zutela, kartzelako lanean esaterako neurri luzetara ohitu dutelako bertsozalea. Bertsolariak buruan duena da doinu luzearekin errazago pilatuko dituela puntuak eta epaile batzuek ere joera hori izan dezakete beharbada, eta hor jai dauka Iker

Zubeldia bezalako bertsolariak. Kontraesan handi bat dugu hor. Finalean sartuko diren bertsolari gehienek baino plaza askoz gehiago egiten ditu Zubeldiak. Gauzak aldatzen hasi ote diren nago, ordea. Aurtengo final laurdenetan, esate baterako, neurri motzagoak erabili dira kartzelakoan, eta gaia jarri eta minutu eta erdia baino lehen heldu diote lehen bertsoari eta txaloak bukatu orduko bigarrenari. Horretaz gain, txapelketak bertsolariari umorea lantzeko eremu gehiago eman behar liokeela uste dut. Nik neuk, bertsozale bezala, Lazkao Txikitik gehiago izango duen txapelketa bat probokatzera joko nuke. Jende asko doa ondo pasatzera txapelketara, umore bila, eta hortik gutxiegi ematen du.

Txapelketaren abantailatara itzuliz, saio arruntetan herriko edo inguruko jendea ikusten duzu. Txapelketako saioetan ia Euskal Herri osoko bertsozaleak. Elkar ikusteko leku ere badira saio horiek.

Hala da. Elkarretaratze eta festatik ere asko du. Euskal Herria aipatu dugunez, oso esparru gutxitan egin da Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lotura bertsolaritzan bezala. Hezkuntza arautuan sartu eta zirkulua ixteko udalekutako mugidarekin la-

nean hasi ginenetik ohartu ginen mugaz gaineko loturak estutzeko bitarteko bat genuela eskuen artean. Aurtengo Bertso Eguna, esate baterako, gazte horiek ari dira genero ikuspegia erabiliz antolatzen. Bestela gertatuko ez ziren harremanak probokatu ditu bertsolaritzak. Aurtun, BECen Terraza Zientifikoa deitu diogun esparru bat antolatu dugu kanpotik etorri diren gonbidatuak eta hemengo ikerlariak elkarrekin harremanetan jartzeko, eta gazte hauei hor presente egoteko aukera eskaini nahi diegu. Hizkuntzen erabilaren aldetik maila ona dute eta interesgarria ikusten dugu hor ego-tea. Mundutik gu ezagutzera datorren jendea izango da bertan: Galestik datozen ikerlariak, Alemaniatic datorren bat, Kataluniatik hamabost bat laguneko ordezkari-tza dator, iparramerikarrak ere badatoz, Latinoamerikako inprobisatzaileak... Aipatzekoa da, gertuko fenomeno delako, Katalunian ere indartzen hasi dela bertako inprobisazio generoa eta lehiaketa bat egiten hasiak direla. Berrehun bat inprobisatzaile baren dabilta eta emakumezko asko tartean. Terraza horretan berrehun bat lagun bilduko dira eta tartean gure ikerlariak ere hor izango dira, gero eta unibertsitari gehiago ari baita bertsolaritzaren inguruko ikerketak egiten.

Mikel Laboa katedraren beka ere bertsolaritzaz lan bat egiteko izango da. Bitxikeria bezala esan dezadan, Madrilgo Kultura ministerioko ordezkari bat ere etorriko da aurtun: Unesco Etxearekin batera bertsolaritza ondare ez material gisa aitortua izan dadin pausoak ematen ari gara. Bi bide ikusten genituen horretarako. Lehena, munduko beste inprobisatzaileekin batera lortzea aitorten hori. Baina azkenean bide horretatik bertsolaritzak diluituta bukatzeko arriskua zuela erabaki genuen. Bigarren bidea Espainia edo Frantziako kultur ministerioen bidez pausoak ematea zen, eta Madrilen izan ziren Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Karlos Aizpurua aurkezpenean. Kultura Ministerioko funtzionario batek dei egin zigun harrituta eta sekulako loreak botaz. Hori ere badator sarrera erosita. Madrilen agintean zein dauden ikusita, nekez zabalduko zaizkigu ateak, baina saiatzen ari gara.

Txapelketa Euskal Herri osoko bertsozaleen topaleku dela esan dugu. Bada erdal eremuetako euskaldun berriak edo euskara ikasi dutenak euskaldun sentitzeko abagune bat ere. Bai, bai, baina kontuz ibili behar dugu euskaldun berrien kontu horrekin. Hemen bertan ere,

Goierrin, euskaldun berriak dira gazte gehienak, hezkuntzaren bidez iritsi direlako euskal hiztun izatera. Ikasle hauetako askok izan dute gela barruan bertsolari-tzarekiko harremana, irakasle asko ausartzen direlako bertsoa baliabide gisa erabiltzera. Gabiriako nire adineko bertsozale asko sarerrarik gabe gelditu dira, baina Gasteizko nire emaztearen kua-drillakoek denek erosi dituzte sarreak eta asko irakasleak dira. Euskalgiekin ere harremanak izan ditugu.

Mexikon izan berri zara. Zer go-goeta egin dituzu?

Ni konplexu pixka batekin joan nintzen hara. «Zer ulertu behar digute?», nion nirekiko, guk eskuak poltsikoan sartuta kantatzen baitugu eta haiek gitarrak, biolinak eta perkusioa instrumentuak hartuta. Eta, hala ere, jende asko harritu egiten zen gu-rekin, halako ukitu espiritual bat zuela gureak esaten zuten batzuek, halako sotiltasun harrigarri bat. Miren Artetxe eta biok izan ginen. Eta hain zuzen ere, Miren Artetxe da Mikel Laboa katedraren beka irabazi duena. Iparaldeko bertsolari gazteen inguruan egingo du.

Erdal munduari txapelketaren berri emateko egin al da ahalegin berezirik?

Ikastaroa eman dugu erdal kazetariei oinarritzko informazioa emateko. Radio Euskadik interes handia agertu du eta jarraipena egiten ari da. ETB2k ere eman du txapelketaren berri, baina irudirik gabe gehienetan. Orain bi txapelketa egin genuen lan handia

eremu horretan eta geroztik guztiek egiten dute jarraipen gutxi-neko bat. Baina egia da gehiago landu beharko genukeela. Heda-bideak aparte utzita, euskalgie-tara bai jo dugu, euskara ikasten ari direnak gureganatzeko.

Txapelketaren antolaketak ahalegin izugarria eskatuko dio elkarteari.

Elkarteko langileak 73 dira uneotan, Euskal Herri osoan hezkuntza arautuan lanean ari direnak barne hartuta. Horientzako lan karga gehigarria da, asteburuak lanegun bihurtzen zaizkielako; eta ez txapelketa nagusian bakarrik, lurraldeka egiten direnetan ere bai. Baina horiez aparte, petoa jantzita borondatezko lana egiten duen jende piloa dugu eta horien artean bertsolariak dira asko. 500 boluntario inguru behar dira finalean eta saio bakoitzeko 50. Madrid Arenako ezbeharraren ondotik segurtasun neurriak gogortu egin dira, eta, gu, mitin politikoen edo ebanjelisten bataio masibo horiekin alderatu beharrean, kontzertuen zakuan jartzten gaituzte. Alferrik da esatea gure ikuskizunean jendea isilik eta eserita egoten dela; ez dute ulertzen edo ez dute ulertu nahi. Mitin politiko batean BECen 15.000 lagun sar daitezke eta gurean 13.700. Gauza horietan xahutzen dugu energia. Bestela, dugun jendearekin lan egitea gozamen da.

Egañak eskatu al du petorik?

Andoni Egañak peto asko janzten ditu elkartearen eguneroko lanean. Eranzten ikasi behar luke. Aulkiak jartzera etortzea errazago lu-

«Bitxikeria bezala
esan dezadan,
Madrilgo Kultura
ministerioko
ordezkari bat ere
etorriko da aurten:
Unesco Etxearekin
batera bertsolaritza
ondare ez material
gisa aitortua izan
dadin pausoak
ematen ari gara»

ke idazleekin elkarlanean, karikatura-egileekin, txistulariekin, musika bandekin eta beste hainbat esparrutan prestatzen ari garen egitasmoetan aritzea baino. Ez dago Andoniri peto gehiago janzterik.

Zu bi aldiz izan zara finalista, 1986an eta 1989an. Zer aldatu da ordutik hona?

Talde bat garen sentipena indartu egin da, eta, hala, gaur finalean sartu direnen kezka nagusia maila oneko finala egitea da. Gu 1986an Belodromoko oholtzara igo ginenean, kontsakratuei egurra ematera igo ginen gure ustez. Egaña, Sarasua, Sebastian Lizaso, Peñagarikano eta ni hasiberri samarrak ginen eta kontsakratuak Amuriza, Lopategi eta Jon Enbeita ziren. Gaurko finalistak, bestalde, askoz ere prestatuagoak iristen dira finalera, gauzak ondo egitera doaz. Beste erantzukizun bat dute. Ez dira bertako 14.000 lagunak bakarrik, telebistaren bidez beste hainbat milaka lagunengana iritsiko dira. 1986an lau argazkilari zebiltzan han bueltaka. Gaur ehunka kamera daude eta mundu osora zabaltzen da BECeko ikuskizuna. Mundua irekitzen ari zaigu. Gu Belodromora joan ginenean etxera begira bizi ginen.

Futboleant gertatzen den bezala, bertsolaritzan ohikoa al da forofoaren figura, zale itsuarena?

Badaude horretarako bizi direnak, zale itsuak alegia. Fisikoki itsua denak asko ikusten du, baina forofo itsuak berea bakarrik ikusten du, eta besteak ikusten duenik ere ez du sinesten. Badago bertsolaritzaz asko dakien jendea.

Zale itsua izateko ez dago asko jakin beharrik. Horretarako bizi dira. Horrelako bat uzten duzu sarerrarik gabe eta akabo!

2005etik lehendakari zaude. Azken lau urte hauetan zer egin da ondo eta zer gaizki?

Azken lau urteak zailak izan dira. Mintzolarekin buruhauste asko izan ditugu berrantolatu dugun arte. Ahozkotasunaren zaku handiegia horretan pixka bat galduta sentitzen ginen. Hori berriro bideratzen indar asko xahutu dugu. Karlos Aizpuruak heldu dio Mintzolako Iker proiektuari, nahiz eta gure langile izaten jarraituko duen. Maider Garaikoe-txeak jarraitzen du lehengo lantalde-tik eta beste arloen ardura eramango du; Mintzola-aren beraren lehendakaria elkarteko lehendakaria izango da. Datorren ikasturterako oso egitasmo potentea prestatu dugu. Ikastola Elkartearekin egin dugun hezkuntzarako hitzarmena ere aipatzekoa da. Lau urteotako lanik handiena hezkuntza arautuan egin duguna da. Eta ikerketaren arloa nabarmenduko nuke azkenik; Mikel Laboa katedraren lortu dugun akordioa ere garrantzitsua da. Lau urteotako alderdi negatiboen artean diru-murrizketen auzia dago, noski.

Ari al zara dagoeneko erreleboa prestatzen?

Prestatzen hasi beharko nuke. Ordezko izan daitezkeen hautagai oso onak ikusten ditut, baina horretako irizpideak finkatu beharko ditugu, eta, beste irizpideen artean, genero berdintasuna ere izan beharko dugu kontuan.



Urbaburu pasealekua, 113 - 27. Industrialdea - ASTIGARRAGA
Tel.: 943 45 09 66 - F. 943 11 67 28

ALDAMIOAK

Aulkiak, mikroak, entxufeak, bertsolariak eta entzuleak. Gauza bakoitza bere tokian

📁 KULTURA / amagoia.mujika@gaur8.info

Bertsolari Txapelketa Nagusiko koordinatzailea da. Hori da bere titulu ofiziala. Oholtzara igozteko eskailerak behin eta berriz frogatzen ikusten duzu orain; bertsolarien berokiak aldagelara eramaten geroxeago; komunera sarbidea kontrolatzen tartean; kartzelatik oholtzara doan bertsolariari arnasa ematen segidan... eta bat-batean sabaitik ur zorrotada dezentekoa erortzen bada, han agertzen da salto batean busti diren entzuleei ondo al dauden galdetu eta barkamena eskatzera. Jon Agirresarobe da, *Torrotxo*.

Bigarren Txapelketa Nagusia du koordinatzaile lanetan. Tartean, herrialdetako txapelketa dezentetan aritu da. Lanean agertzen duen eskarmentua ikusita, ematen du ez duela besterik egin bere bizitza guztian, txapelketan gertatzen den edota gerta daitekeen guztiaren adidi egon, alertan.

«Nire lana da dena ondo doala gainbegiratzea. Bertsolariekin egon behar duenari agindu garbiak ematen dizkiot zer eta nola egin behar duen. Saiatzen gara, gainera, beti jende berdina izan dadila bertsolariekin egoten dena. Gauza berdina muntaia koordinatzen ari denarekin eta gainontzeko talde guztiekin. Aste barruan ni bakarrik aritzen naiz eta asteburuetan hamasei bat lagunekoa taldea koordinatu behar izaten dut. Bakoitzari bere arloko zehaztapenak eta aginduak ahalik eta garbien eta txukunen ematea da nire lana. Gero saioko egunean zer egiten duan? Ba begira egon, dena ondo doala ziurtatu».

ZAILENA, TENTSIOA EZKUTATZEA

Txapelketan tentsioa handia da. «Bertsolariak tentsioan daude, elkarte bera tentsioan dago, entzulea ere tentsioan jartzen da... ikasi egin behar da tentsio hori eramaten. Antolakuntzaren tentsioak ezin du bertsolariengana iritsi, eta hori ezkutatzea da lan honen parterik zailena. Nola egingen den hori? Ba aurretik gauzak

Erriman eta neurrian estu sartu behar dute bertsolariek. Berdin neurtua da oholtzazko lana ere: oholtzazko muntatu, aulkiak jarri, sarrerak moldatu, soinua eta argia puntuan jarri, kazetariak kokatu, bertsolariei harrera egin, bertsozalea eseri... Pieza ugariko makineria da txapelketa, eta denak behar du bere tokian funtzionatuko badu.



Eskuin aldean, Jon Agirresarobe, «Torrotxo», Bertsolari Txapelketa Nagusiko koordinatzailea. Alboko orrialdean, borondatezko langile bat aulkiak jasotzen.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

nola egingo dituzun oso ondo pentsatuta. Ezin duzu txikikeria batekin egoskortu, hobe da hori beste norbaiten esku utzi eta osapa egitea beste lan batzuetara. Ardura guztietan dago pertsona bat, garbi duena zer egin behar duen. Klabea da konfiantzazko jendea izatea, eta hala da. Elkarreko langileak, Lankukoak eta

bertso eskoletako jendeak osatzen du lantaldea», kontatu du.

Aste barruan muntaiaren xehetasun guztiak jaso eta ondo zehaztuta uzten dituzte saioaren egunerako. Txapelketako saio denak –finala kenduta– arratsaldean jokatu dira, guztiak ere 17.30etan hasita. Hartara, lantaldea goizeko zortzietarako egon

ohi da aretoan. «Normalean azpiegituraren zati bat dagokion udalak jartzen du, eta, beste zati bat, guk. Herrialde horretako eragileak eta biok ziurtatzen dugu azpiegitura hori ondo dagoela, eta gero gure zatia muntatzen hasten gara. Lankuko Mikel Mariskal da horren ardura duena. Altsasuko saioan muntatzeko

garaian oholtzatik behera erortzen eta mina hartuta dago. Beste lankide batzuekin osatu dugu lantaldea eta ondo, baina sumatzen da haren hutsunea. Agertokia eta aulkiak muntatzen hasten gara; 09.30ean –beti ordu horretan– argiteria eta soinu teknikariak etortzen dira; gauzak beti orden berdinean jartzen ditugu... Normalean 12.00etarako ia dena prest egoten da. Beti 13.00etan joaten gara bazkaltzera eta 14.00etan altxatzen gara mahaitik. Erritual modukoak dira. 15.00etan herri horretako bertso eskolarekin egiten dugu bilera eta hori da klabea. Han egoten dira ate nagusian egongo dena, ate txikian egongo dena, kartzelaria... 15-17 bat lagun egoten gara lanean. Hor zehazten ditugu gauza guztiak. Sarrerak, bertsolariei harrera eta, batez ere, emergentziak. 16.00etan da hurrengo marka. Ordu horren bueltarako denak prest egon behar du ateak ireki aurretik. Aretoa nola betetzen ari den ikusi eta 17.25ean sarrerara gerturatzen naiz bertan daudenei esateko jendea nora bidali behar duen, non dauden oraindik esertzeko tokiak. Hartara, azkenak sartzen direnak zuzenean esertzeko modua izango dute, saioaren hasiera oztopatu gabe».

SEGURTASUN NEURRI ZORROTZAK

Duela urtebete pasatxo Madrilgo Madrid Arena aretoan gertatu zen ezbeharrak asko estutu ditu ekitaldi bat antolatzekeo arauak eta baldintzak. «Aforoa, aseguruak, ebakuazioak... kontua oso zaila eta zorrotza jarri da eta txapelketa ere markatu du. Batzuetan entzuleren batek esaten dizu, 'hor bazegoen tokia aulki gehiago jartzeko'. Bai, baina ebakuatzeko oinarritzko baldintzak bete beharra dago. Legea oso zorrotza da eta beti ezin dituzu gauzak zuk nahi bezala egin», esan du.

Dena kontrolpean izatea gus-tatzen zaio Torrotxori, hori da hain justu bere lana, baina ezustekoak horixe dira, kontrolatu ezin direnak. «2009ko txapelketan argia joan zitzaigun Bergarako saioan, Maialen Lujanbio eta Jon Martin kantuan ari zirela.

Bagenekien muga-mugan ginea. Guk gutxienez behar dugun argi indarra justu zegoen. Kiroldegiko tabernakoei esana genien ez ezer entxufatzeko. Langile bat etorri zen saioa hasita zegoela, ogitartekoak egiteko labea martxan jarri zuen eta argia joan zen kiroldegian. Aurten Altsasun argia herri guztian joan zen bost segundoz, eta Unai Agirre kantuan ari zen. Aste horretan sekulako lata eman genien teknikariei dena ondo zegoen ziurta zezaten. Oiartzunen sabaitik zintzilik zeuden plastiko batzuetatik ura erori zen jendearen artea. Barrosok bertsotan jarraitu zuen eta entzulea geldirik geratu zen. Badaude idatzi gabeko lege moduko batzuk eta normalean saioari eutsi egiten zaio, ez da eteten. Beti izaten ditugu prest ordezeko gaiak, baina oraingoz ez ditugu inoiz baliatu».

Kartzela egoki bat topatzea ez da beti lan erraza izaten. Normalean beharrezkoa izaten da saioa jokatzeko ari den eraikinetik ateratzea eta beti ez da nahi bezain gertu topatzen bertsolariak itxaron dezaten tokia. «Tolosan lurpeko areto batean topatu genuen kartzelarako toki egokia. Eta han Iñaki Gurrutxaga geratu zitzaigun igogailuan harrapatuta kartzelara zetorrela. Bertsolariaren nortasunak salbatu gintuen, ondo eta lasai hartu zuen Gurrutxagak. Baina sustoa handia izan zen».

Bertsolariak mimo bereziz zaintzen saiatzen dira saioetan, haiek baitira emanaldiaren pisua bizkarrean daramatenak. «Antolakuntzan tentsioa nabari da, aretoan milaka lagun daude



eta ardura handikoa da hori. Ni urduri baldin banago, ez naiz bertsolariengana hurreratzen, ze hori transmititu egiten da. Bada go bertsolariei harrera egiteko jende egokia, Iñaki Murua, esaterako. Berak egiten die harrera, la-saitasuna transmititzen die eta animoak ematen dizkie. Ni lasai baldin banago joaten naiz bertsolariak agurtzera, baina haien-tzat trantzeko unea izaten da,

eta, ez baduzu onik egingo, hobe da ez joatea. Nik neurtzen dut hori. Txapelketaren aurreko bertsolarien aurpegierak ez dira batiere atseginak izaten. Nik askotan esaten diet, 'ez nuke zuen larruan egon nahi'. Badaukate puntuen ardura, baina horren gainetik talde bezala maila eman beharraren ardura igartzen zaie. Horrek asko inpaktatu ninduen lehen aldian», kontatu du. Gutxi

edo gehiago, dagoeneko Agirresarobek ezagutzen ditu bertsolariak. «Batzuei gustatzen zaie animoak ematea. Beste batzuek nahiago dute isiltasuna. Hori ere ikasi dugu pixka bat eta badakigu noiz esan eta noiz isildu».

Pentsatzekoa denez, bertso saioak iraun bitartean denetarik egiten du Agirresarobek, denetarik bertsoak entzun izan ezik. «Saioan ezin ditut bertsoak jarraitu, baina gerora beti entzuten ditut. Xenpelarkoek pasatzen dizkidate grabazioak eta astean zehar askotan autoan nola entzuten ditut asteburuko saioak. Oso garrantzitsua iruditzen zait. Bertsolari bat aurreko saioan egin zuen zortziko txikiko ariketaz hitz egitera etortzen bazait, nik jakin egin behar dut zerri buruz ari den. Garrantzitsua da hori», esan du.

Talde lanaren sentimendua oso presente egoten da oholta

gainekoan, eta baita oholztapean antolaketan dabiltzaneren artean ere. «Eskarmentu pixka bat badaukagu eta asko ikasi dugu taldean lan egiten. Herrialdeko txapelketen bueltan, herrialdeko bertako arduradunetz gain, elkarteko jende berdintsua ibiltzen gara eta horrek segurtasuna eman digu lanean. Bakoitzak garbi dauka zer egin behar duen. Agian 2009an ez geneukan patxada bat lortu dugu aurten».

ELKARTEAREN ESTILOA

Txapelketa garaian Bertsozale Elkarteko langileek astean zehar beren lan martxari eusten diote eta asteburuetan txapelketan lan egiten dute. «Zu nominaduna zara, baina ikusten duzu txapelketan borondatezko zenbat jende aritzen den. Zuzendaritza bera borondatezkoa da. Oso garbi izan behar duzu erabakigunak borondatezko jendeak dituela bere esku eta zu horiek dinamizatzeko zaudela, haien proposamenak lantzeko. Egia da azkenean giro horrekin kutsatu egiten zarela. Zuzendaritzako kideek beren lanetik atera eta orduak eta orduak ematen dituzte elkartean lanean. Eta profesionalak garenok ere borondatezko lan asko egiten dugu, hori delako elkarteko giroa eta estiloa».

Irailaren 29an abiatu zen txapelketa Villabona-Amasan. Orduetik hiruzpalau egun libre izan ditu, «eta elkarteko ia gehienek ere berdin». Eta egun horietan telefonoa askatu gabe egon behar izan du, badaezpada. «Bada kigu zer dagoen txapelketan. Gero hartuko dugu atseden». Gero, abenduaren 15a eta gero.

Duela urtebete pasatxo Madrilgo Madrid Arena aretoan gertatu zen ezbeharrak asko estutu ditu ekitaldi bat antolatzeko arauak eta baldintzak, eta horrek markatu du txapelketa

«Lasai baldin banago joaten naiz bertsolariak agurtzera, baina haien-tzat trantzeko unea izaten da, eta, ez baduzu onik egingo, hobe da ez joatea. Nik neurtzen dut hori»

ADARRA LAN TRESNAK
SUMINISTROS INDUSTRIALES
zure neurria sorturiko lan tresnak

Zikuñaga Bailara 27 HERNANI Txirrita Kalea 11

943 55 51 50

Torrebaso 8 ESKORATZA

www.adarra.es



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Ezustean eta pozik hartu du BECeko agertoki gainera igotzeko gonbidapena. «Ohorea da niretzat», aitortu du Joanito Dorronsorok.

Milaka begi izango ditu berari begira. Dozenaka argi-foku eta kamera. Baina Dorronsorok garbi du zein duen finaleko eginkizuna. Bitartekari sentitzen da, bertsozaleen ordezkari. «Bertsolarien eta bertsozaleen familia gero eta ederragoa eta ugariagoa da, eta horien denen izenean jarriko diot txapela», esan du.

Txapela janzteko unean ez du ez bertsorik botatzeko asmorik ez hitz egiteko asmorik. «Ez dut sentitzen nire burua protagonista, ezta gutxiagorik ere, bertsolariak dira protagonistak; nik baino hobeto kantatu eta hitz egingo dute haiek», dio.

Bertsoez gozatuz, telebistaren bidez eta saioaren batera joanez jarraitu du aurtengo txapelketa. Bihotzean badu arantza, Jon Maia oholtza gainean ez ikustea. Maisu eta ikaslea dira. Izan ere, Dorronsoro izan zen Jon mutil koskorra zela bertsoan entzun zuen lehenengoa. «Biok dugu pena. Nik txapela janztea eta berak irabaztea gehiegi eskatzea izango zen... Bioi horixe pasa zitzaigun burutik. Gure ametsa horixe izango zen», bota du, irribarrez. Oso «berea» sentitzen du zumaiarra. «Jonen familia erdalduna izanik bertso eskolan jaso zuen dena», nabarmendu du.

Zumaiako Aita Mari Ikastola-ren sortzaileetako bat izan zen Dorronsoro eta Bertso Eskola jarri zuen bertan abian. Euskal Herriko historian giltzarri izan diren gizarte eta kultur mugimenduetan zuzenean parte hartu du ataundarrak. Gazte apaiztu zen, 23 urterekin, eta ia hogeitau urte geroago utzi zuen apaizgintza. Gaintzan eman zituen lehen urteak eta hantxe bertsozaletu zen, herriko gazteekin.

Apaiz egin zenean langileen alboan egoteaz gain, langile mugimenduko parte izatea erabaki zuen. «Kristautasuna eta marxismoa lotu eta langileen alde lan egin nahiak eraman ninduen galdategian lan egitera; oso harro nago horretaz», aitortu du.

Urte luzetako lanaren aitortza egin nahi dio gaur Bertsozale Elkarteari. Bi ekarpen nagusi egin dizkio bertsolaritzari Joanito Dorronsorok. Lehenengoa, bertsolaritza ikastolan txertatzea. «Xabier Amuriza, Imanol Lazkano eta Patxi Goikolea hasi ginen ikastolen barruan mugimendua

JOANITO

DORRONSORO

TXAPELA JANTZIKO DIO TXAPELDUNARI

Joanito Dorronsorori egokitu zaio aurtengo txapelketa txapela janzteko ohorea. Protagonismo zale ez bada ere, pozik hartu du gonbita.

xole.aramendi@gaur8.info

«Bertsolaritzak
gaur egun duen
indarraz
harro nago»



Zarautz ehuntzen
100 egitasmo udal-plana zarautzarron bizimodua hobetzeko

informazio gehiago www.ehuntzen.info



@ehuntzen

sortu nahian. Haien enkarguz bertso antologia ['Bertsotan I' eta 'Bertsotan II'] egin nuen».

Garai batean baserri giroan modu naturalean egiten zen transmisioa etenda zegoen eta irakaskuntzan bertsolaritza txertatzearen beharra ikusi zuten. «Herri honek beti izan du beharra ikusi eta hari erantzuteko gaitasuna. Orduan ere halaxe gertatu zen», gaineratu du.

Liburuen osagarri bezala bertso doinuak neurriaren arabera sailkatzea otu zitzaion. «Doinu guztiak bildu eta bertsolarien zerbitzura jartzea pentsatu nuen; ordura arte egin gabeko lana zen», gogoratu du.

Hura izan zuen akuilu. Hura izan zen ondoren osatu duen doinutegi mardularen abiapuntua. Lan batek bestea ekarri zuen. «Bertso Doinutegia» izan da bertsolaritzari egin dion bigarren ekarpen nagusia.

Inurri lana izan da. «Inoiz bukatzen ez den lana da», nabarmendu du. 77 urte beteak ditu baina oraindik ere doinutegia txukundu eta aberasten jarraitzen du.

Euskal Herriko bertsozaleek osatzen duten taldeko kide sentitzen da eta ez dio aparteko meriturik ematen egindako ahaleginari. «Hantxe egokitu nintzen...», dio.

Egindako ahalegina ez da alferrikakoa izan. Bertsolaritzak gaur egun duen indarrak harro dago Joanito Dorronsoro. «Zuberoan txapelketako saioa egitea bera handia da. Horrez gain, herriz herri bertso eskolak sortzen ari dira. Autoeraketa oso modu egokian egin da. Jende as-

IBILBIDEA 1936an

jaio zen Ataunen. Apaiz ikasketak egin ondoren, Gaintzan eta Itziarren bete zituen apaiz lanak.

Zumaiako **Aita Mari**

Ikastolaren sorreran parte hartu zuen 1967an. Bertan bertso irakasle aritu zen lehenik eta Bertso Eskola sortu zuen ondoren.

Irakaskuntzarako metodologia sortu zuen.

1970ean Torreaga

Fundizioan hasi zen

lanean. **Apaizgintza eta lana** uztartu zituen.

1977an apaizgintza utzi

zuen. **Bertso doinutegi** mardula osatu du. Zumaian bizi da.

«Lana bai, egin dut, baina gozatu ere bai; eskutik joaten dira biak»

Lana erruz egin du Joanito Dorronsorok, baina gozatu ere neurri berean egin duen sentipena dauka. «Lan asko egin dut, baina gozatu ere asko; biak eskutik joaten dira normalean», esan du.

Taldekieen laguntzarekin eta babesarekin erabaki, baina, ondoren, bakarka burututako proiektuak izan dira gehienak. «Zure kasa egiten dituzu era honetako kultur lanak eta horiei esker nolabait txertatu egiten zara zure herriaren izaeran», adierazi du.

Murgildu den proiektuen artean bada bat gozamen berezia eman diona: bertsolaritzaren antologia. «Asko gozatu nuen. Oso mundu interesgarria deskubritu nuen. Euskal Herriko historia osoa kontatzen

da oso modu xehean. Euskal Herrian historiako liburu handirik ez daukagu, baina ahozko tradizio handia dugu», adierazi du.

Lan eskerga hark izan zuen mikatzetik ere. Osasunak abisua eman zion. «Bihotzekoak eman zidan. Semea izanda, alaba jaiotzekoa zela, gau eta egun aritzen nintzen... baina lan ederra izan zen», gogoratu du.

Antologian bildutako pasadizoak ez ziren paperera mugatu. Bizia hartu zuten, ondoren, haiek oinarri hartuta, ataundarrak egiten zituen kontakizunetan. «Istorioak dira eta gozatu egiten nuen gero eskolan eta etxean seme-alabei haiek kontatzen», gogoratu du. Begiak piztu zaizkio une goxo haiek gogoratzean.

koren partaidetza eragin du, herri honek duen sena oso garrantzitsua da. Nahi nuke euskal kulturaren beste alorrek bertsolaritzak duen indarra edukiko balute; bertsolaritzaren mugimendua eredua da askorentzat».

Bertsolaritzaren bilakaera arrakastatsuen gakoak galde-tuta, zera dio: «Politikan sartu da, baina alderdikierian erori gabe. Jakin du erakunde publikoei zorrotz eskatzen beharrezkoa izan denean, baina, era berean, irekitasunez jokatzeko».

1980TIK DOINUTEGIAN MURGILDUTA

1980an ekin zion Dorronsorok doinutegia osatzeari. Bakarka egindako bidea izan da. Irizpideak zehaztea izan zen lehen pausua. Behin hori eginda, doinuak biltzeari ekin zion. «Doinu ugari zeuden, asko solfeoz idatzi gabekak eta izenik gabekak», kontatu du ataundarrak. Etxeko egongela duen pianoa lagun izan du urte hauetan guztietan doinuak partitura bihurtzerakoan. Dene-

ra 3.100 doinutik gora ditu bilduak. Lehenik eta behin, 2.000 doinu inguru jaso zituen argitaratu eman zuen liburuan, eta, ondorengo uzta oparoa, berriz, Interneten jarri du kontsultagai (<http://bdb.bertsozale.com/web/doinutegia/bilaketa>).

Arnas luzeko lana izan arren ez zaio nekoso egin. «Gustura egin dut. Konturatzen nintzen eginkizun garrantzitsua zela».

Han hemengo bertso saioetan bakarrik ez, erromerietan, omenaldietan... edozein ekitalditan aurki daiteke perla politen bat. Belarriak zorrotz izaten ditu beti Dorronsorok. Bilaketan Bertsozale Elkarteko kide den Martin Aramendiren laguntza du.

Aurtengo txapelketak eman duen doinu berrien uzta ez du aletu oraindik. «Bospasei izan dira berriak, baina horiek aztertzea ondorengo lana izango da. Dena den, alor honetan bertsolariak nahiko pobre ibili diren inpresioa daukat. Zortziko txikian, adibidez, hiruzpalau doinu erabili dituzte. Txapelketan

errazera joaten dira, nahiz eta entzuleak estimatu egiten duen aniztasuna», argitu du.

ALTXOR OPAROA

Dugun kultur altxorraren oparotasuna nabarmendu du, askotan merezitako balioa ematen ez zaiona. «Euskal Herriak sekulako aberastasuna dauka herri musikan. Herri hau Pirinio mendian kantari bizi den herria bezala definitu zuten. Definizio polita da. Herri honek bere sentimendu eta bizipen guztiak kantuz adierazi ditu. Gure kantari izaera galtzen ari gara, baina ondare aberatsa daukagu», adierazi du.

Doinuak jaso eta sailkatzen ari zela konturatu zen Azkuek, Aita Donostiak eta Salaberryk lan handia egina zutela lehenetik. «Industriaren eraginez herri musika galbidean zegoela ikusirik herriz herri bildu zizuten doinuak. Haiek aztertzen hasi eta konturatu nintzen ia denak bertsoak zirela», kontatu du.



«Gaia eta niri interesatzen zaidan mundua lotzen saiatuko naiz»

Txapelketan oraindik aritu gabea da eta denon ahotan dagoen galdera da nola egongo ote den. Lasai, gogoeta-tsu eta inguruari adi dagoela iruditu zaigu; soseguz eta hitz umilez jositako diskurtso sendoez jantzia.

Finalean zain eman duzu txapelketa osoa.

Ez da lehen aldia. 2005ean ere hala izan zen, aurreko txapelketako lehena eta bigarrena zuzenean finalera sailkatu ginelako. Baina txapelketa hasieratik bizitu dut lagun bidez. Bertso eskolako lagunak hasieratik parte hartu dute eta haiei segika ni ere barruan egon naiz. Eta entzule bezala ere dezentegitu dut. Baina egia da desberdina dela, ez daukazulako zure burua nola dagoen neurtzeko aukerarik; zaila da finalaren egunera puntuan nola iritsi kalkulatzeko. Bestalde, ez dut asko pentsatu horri buruz, pozik egon naiteke. Kanpoan geratu diren askok hartuko lukete aukera hori, eta, beraz, konforme nago.

Eta jende askoren galdera da: «Nola dago Maialen?»

Gogotsu nago. Gogoz nago edukiko dudana aukera bakar horretan nire onena emateko. Sekulako plaza da, hitzordu handia, jendetza egongo da, finalista taldea polita da... Nire helburua da baldintza guztiak hain onak diren plaza horretan nik ere nire onenetik ematea.

Ez dakit nola antolatzen den txapelketa egun bakarrerako. Kiro-larien antzera «planning» bat egiten den...

Nik ez dut egiten, nahiko lanbroa naiz gauza horiekin. Igual pentsatzen dut egin behar dudala, baina gero ez dut egiten. Iritzira egiten dut, boladaka estuago eta boladaka lasaiago, baina ez modu programatuan. Lan gehiena bakarka egiten dut, baina bertso eskolara ere maiz joaten naiz. Ez hainbeste txapelke-

ta prestatzeko, txapelketa bizitzeko baizik. Bertso eskola da txapelketako gauzarik politena agian; elkartu, aipatu, elkarri zuzendu, barre pila bat egin... Txapelketaren saltsa bizitzeko modu bat da bertso eskola.

Hernaniko bertso eskolak zeresana eman du. Mauleko saioan sei bertsolaritik lau bertso eskola horren bueltakoak ziren.

Ez da oraingo kontua. Hernaniko bertso eskola indartsua izan da beti. Igual aurtengo ezustetako bat Unai Agirre izan da; guretzat ez, baina jendearentzat bai. Baina Unai ez da nobedade bat, bizitza guztia darama maila altu horretan. Emaitzak onak izan dira, baina horrez gain Hernaniko bertso eskolak bestelakoak ere utzi dituela uste dut: doinu ederrak, beste bertsokera bat, Agin Labururen ekarpena ere hor dago... Uste dut horrek arrastoa utzi duela.

Egia da nortasun handiko bertsokera dela, doinueta, joskeratan, hitz biraketan...

Bertso zaharrak kantatu eta ikasteko ohitura badago, Txirritaren erreferentia ere hor dago... Gure bertso eskolan betidanik landu izan da hori. Hortik aparte, norberarena ere bada. Adibidez, Unai Agirre bertso zaharren artxibo bat da, baita bere anaia Eñaut ere. Ildo horretan beraiek ere lagundu dute bertso zaharrekiko gustu horretan. Baina, bai, Hernaniko bertso eskolan badago gustu bat, joera bat gauza batzuekiko. Ni ez naiz bereziki horretan sentitzen.

Bertsolari askok inbidiaz beza-la esaten du zuk paseatzen prestatzen duzula txapelketa, teknika erabat menderatuta...

Aurten ez naiz hainbeste ibili. Halere, hori besteek esango dute, baina nik ez daukat batere garbi. Teknikoki zer landu asko daukat, eta ari naiz pixka bat egiten, baina pixka bat... Baina egia da ibili horretan oso ondo zentratzen naizela, etxean eta mahaian baino askoz hobeto.

MAIALEN LUJANBIO

Hernani, 1976. Arte Ederretako lizentziaduna da eta sorkuntzari emana bizi da. 2009ko Txapelketa Nagusiko txapelduna. Aurtengoa bosgarren final nagusia du.

amagoia.mujika@gaur8.info



Gustatzen zait oinez ibiltzen ari naizela jarrera lantzea, burua lantzea.

Finala luzea da, ordu asko dira. Kontzentrazioa, jarrera, tentsioa... txapela janzteko ez da nahikoa bertsotan ondo egiten jakitea.

Egia da jarrera kontua badela; prestaketa psikologikoa, sines- tea, urduritasuna, tentsioa, egun horretan nola zauden gorputzez eta buruz... Horrek guztiak asko esan nahi du, baina, gero, niri oso zaila iruditzen zait neurtzea noiz estutu eta noiz lasaitu. Ni horra ez naiz iristen. Niretzat klabea da zure buruaren kontrako gerrarik ez egitea, eta, momentu batean irristatzen baldin bazara, ez uztea zure burua, ez erortzea edo ez botatzea. Eutsi eta sinetsi hurrengoa hobeto aterako dela. Hori da niretzat jarrerari eustea. Psikologikoki oso- oso gogorra da, oso exijentea, lan fisiko eta psikologiko gogorra da. Gero han egon izanak ere laguntzen du. Baina, tira, hau dena teoria da, erraz esaten dena, baina gero han egon egin behar da.

«Niretzat klabea da zure buruaren kontrako gerrarik ez egitea, eta, momentu batean irristatzen baldin bazara, ez uztea zure burua, ez erortzea edo ez botatzea»

Zuretzat bosgarren finala da. Aurrekoetatik zer geratu zaizu?

Nik lau final izan ditut, eta denetarikoa. 2005. urtekoan, esaterako, oso-oso gaizki pasatu nuen, nekatuta nengoen eta bukatzeko beharra sentitzen nuen. Pentsatzen dut berriz horrelakorik gertatuz gero desberdina izango dela; ja bizitu dut horrelako egoera bat eta horrek lagunduko ote dit... Aldiz, 2009ko finalarekin gogoratzen naiz eta sekulako intentsitate eta kontzentrazio sentimendua dator- kit, baina orain nagoen momentuan ezin dut horrela sentitu. Hara joan eta ikusi egin behar horrelakorik sentitzeko gai ote naizen. Egun horretan tentsio- rik ez da faltako, kontua da ten- sio hori nola kudeatzen den.

Esan nahi duzunetik oso gertu ibiltzen zara beti. Zure sinaduraren parte da hori. Eskarmentua sumatzen da hori.

Eskarmentua eta hautu bat edo norabide bat zure lanerako. Ni kezkatuta egoten naiz esan nahi dudanez hurbil ibiltzeko, gaiak proposatzen duenaren eta niri interesatzen zaidan munduaren arteko lotura egiteko. Eta aurten ere jarreraz saiatuko naiz hori egiten. Interesatzen zait gure inguruko errealitateaz hitz egitea, pertsonalak eta era berean kolektiboak diren mundu, sentsazio eta arazoei buruz hitz egitea. Saiatuko naiz esaten ahal dudana neurrian.

Nola lantzen da hori?

Beti esaten dugu bertsolariare- na jarrera bat dela. Eta ez da txapelketa garaiko jarrera, gure lanari lotutako bizi jarrera bat baizik. Guztiena izan beharko lukeen jarrera dela iruditzen zait, alerta egotea eta inguruko gaiekiko zure burua kokatzea. Ez da bakarrik informazioa irentsi behar, digeritu egin behar da. Hori da jarrera, ez dago besterik. Gero, han, momentuan, gauza asko neurtu behar dira; ze gai den egokiena, inter- resgarriena, eraginkorrena, ze gogo daukazu... Segundo gu- txitan gauza asko erabaki behar dituzu, baina aurreko lan hori hor dago.



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Ahots oso propioa garatu duzu. Eta baita txapela eramateko modu propioa ere.

Ez diot eman garrantzi handirik horri. Txapela jantzi nuenean ere jende guztiak galdetzen zidan ea nola eramango nuen txapela, eta galdera arraroa iruditzen zitzaidan. Nola? Ba ahal dudan ondoen. Saiatuko naiz egon behar dudan tokietan egoten eta egon behar ez dudanetan ez egoten; edo egon nahi ez dudanetan ez egoten. Bakoitzaren nortasunarekin datorren ibilera bat da, ez da nik diseinatu dudan gauza bat. Bakoitzak izateko modu bat dauka eta gustatzen zaio modu batera edo bestera jokatzea, bistan egotea edo ez... Errepika handirik ez diot ematen. Niretzat garrantzitsua izan da ez ezkutatzea, egon behar nuen tokietan egotea, baina egon nahi ez nuen tokietan ez egotea. Ahal dudan ondoen egin dut eta erabat nire nortasunetik.

Eta txapelak ez dizu bizitza aldatu.

Ez, batere ez. Konpromisoren bat gehiago, elkarriketaren bat

gehiago txapelketa osteko olatu horretan... baina gero lau urtean gauzak asko baretzen dira. Niretzat ez da iraultza bat izan. Niretzat benetako aldaketa 2001. urteko txapelketa izan zen. Bertsotan buru-belarri aspaldidantik nabil, beraz, gehiago ezin naiz egon.

Bada esaten duenik txapela berriez jantzi behar duzula txapel-dun izaera hori berresteko.

Zorionez ez dut horrelakorik entzun eta grazia pixka bat ere egin dit. Zer berretsi behar dut? Urte asko daramatzat bertsotan eta Euskal Herriko txapela ez du hainbeste jendek jantzi. Ez dut ezer berresteko inongo beharrik sentitzen. Zorionez hainbeste bertsolari on daude eta egon dira sekula txapelik jantzi ez dutenak! Txapelketak bere barne logika propioa dauka eta hortik kanpo bertso mundu propioa dago.

Txapela janzteko beharra ez, baina gogoa?

Nik nire buruarekin badaukat apustua. Finalera noan unetik

badaukat helburu bat eta gauzak ondo egin nahi bat. Saio bakarrera gainera. Nire onena eman nahiko nuke eta horren ondorioa txapela bada, ba oso ondo. Eta ez bada, behintzat nahiko nuke gauza eder batzuk utzi eta eguna ondo bukatu.

Txapelketak barne logika propioa duela diozu. Jendetza dabil eta sarrerak bukatzen dira espero baino lehen. Plazako martxa berdintsua al da?

Iñaki Muruak ere ederki esan zuenez, jendea harritu egiten da 12.000 lagun bertsoak entzutera joaten delako, baina urtean zehar plazaz plaza askoz jende gehiago dabil. Kultur mundua hain apal ikusten den garaiotan bertsolaritza osasuntsu dagoela esango nuke. Udarako ibileratik sartu gara txapelketara eta udaran plazak beteta egon dira. Jendea badabil bertsotan eta hori ez da doakoa, aurretik egindako lan bati esker baizik. Eta justu txapelketaren kontrakoa da, herriz herriko lana, herriz herriko bertso eskolak antolatzen duen saioa... eta hori da ederrena, ber-

solaritzak daukan oinarri zabal eta autonomoa. Hori da gure benetako altxorra. Gaur egun Bertsozale Elkarteak ezin du ulertu borondatezko lanik gabe.

Kulturgintzan askok diote Bertsozale Elkarteak eredu dela.

Bertsozale Elkarteak oso perspektiba finarekin diseinatu du bere bidea eta ederra da nola asmatu duen ikustea. Ondo dago kulturgintzarentzat interesgarria eta ereduagarria izatea, baina, era berean, zer pentsa ere ematen du. Kulturgintza osasuntsuago batean agian bertso-laritzari berez ez legokioke hain talde buru izatea. Bertsolaritza ezin da modu bakartuan ulertu, testuinguru linguistikoan eta kulturalen baizik, eta horrek elikatzen du. Bertsolaritzak estimatuko luke inguruko ekosistema hori sendoago balego.

Finalean berriz emakume bakarra. Baina txapelketan emakume gehiago eta eredu desberdinak ikusi dira.

Bai, eta hortxe egon dira zoriorian Alaia Martin eta Jone

Uria. Niretzat pozgarria da emakume mota desberdinak ikustea, bestela beti dago irudi bakar eta murrizta. Elkartean ere badago kezka eta sentsibiltatea emakumea eta jende aurrekotasunaren inguruan, eta hori ere pozgarria da.

Emakumeen ahotsa presentean, eta, gizonena ere, desberdin igartzen da.

Garai batean, gu hasi baino lehenago, gizonenak bakarrik kantatzen zuten eta haiek egiten zituzten emakume paperak eta gizon paperak. Gaur egun gizonenak ez dira fikzio batez ari, emakumeen papera ez da fikziozko paper bat, zure ondoren dagoen emakume horren bi- zipenez eta egoeraz ari zara. Normala da ingurukoei eragitea. Baina emakumeen presentziak bezala, beste gauza askok eragiten dute. Errealitate berriak integratzen diren aldiro ingurukoek moldatu egin behar dugu. Ze agian lehen errealitate horiek maila teorikoan bizi zenituen, baina, ondoren dituzunean, mugiarazi egiten zaituzte. Amaia Agirreren amatasunak, esaterako. Lehen errealitate hori ere bazegoen, baina, zure ondoren daukazunean, ja ez zara hipotesiez ari. Norbanako sortzaile bezala oso interesgarria da, moldeak etengabe kolokan jartzen dituzu eta zurrinak diruditen zure zutabeak moldatzeko bide bat da.

Jon Maia gabeko finala da. Sumatuko da, ezta?

Jonen papera ezin du beste batek ordezkatu. Gure belaunaldiak oso talde bezala bizitu izan ditu finalak, eta pena ematen du baten bat bidean geratzen denean. Duela lau urte Igorren pena izan genuen, eta aurrean Jonena. Baina erlatibizatu egin behar da, batzuen pena eta besteen poza. Aurten Beñat sartu da eta oso taldeko sentitzen dugu, eta pozik gaude horregatik. Baina egia da Jon oso pertsona berezia dela. Nire orain arteko finaletan konturatu naiz denak oso estu eta arraro gaudenean, Jonek asko laguntzen duela tentsio hori hausten eta umorea jartzen duela.

AMETS ARZALLUS

Hendaia, 1983. Kazetaria da, eta hedabide ugaritan kolaboratzen du. Lau aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta hirutan Xilaba txapelketa. Txapelketa Nagusiko hirugarren finala du.

amagoia.mujika@gaur8.info

Patxadaren eta tenple onaren maisua da Amets Arzallus, dardarari elegante eusten diona. Berrezkoa duen tasun hori nabarmendu egin zaio eskarmentua pilatu duen neurrian. Finala, gozamina eta ilusioa hitzak behin eta berriz elkartzen ditu esaldi berean.

Esaten da finalurrekoetan ez dugula Amets %100ean ikusi... Nik ere entzun dut kritika hori. Ni neure lanarekin konforme geratu naiz, gustura. Ez denarekin, noski, saio oso-osoak igual ez zait atera, beti parte bat izan dut haserre samar eseri naizena neure buruarekin. Beti daukazu saio idealaren perspektiba eta gero zaila izaten da konplitzen. Baina nahiko airoso ibili naiz, ideiak ondo etorri zaizkit eta sentsazio onarekin aritu naiz bertsotan. Gehixeago egin neza-keela? Kritika hori lausengu bat bezala jasotzen dut. Ikusten badute gehiago egin zenezakeela, jendeari zerbait transmititu izan diozun seinale. Kontziente naiz oso zaila dela beti, ariketa guzti-guztietan, zure mailan egotea. Tira, egindako gauza batzuekin geratzen naiz eta ustez hobeto egin zitezkeen beste batzuekin ere bai.

Jendeak gehiago espero izatea lausengua dela diozu, ez da inoiz zama bihurtzen? Bai, zama ere bada. Aldi berean, maila baten onarpena ere bada. Bi aldeetatik har liteke. Ni saiatzen naiz ahalik eta gehien abstraitzen; espektatiba horiek ez didate laguntzen egin behar dudana egiten. Zentratzen naiz neure baitan, ustez zer egin nahiko nukeen eta horrexen bila aritzen naiz. Belarriak zabalitzen ditut, baina atera ere egiten zait sartzen zaidana. Presioa ondo daramat.

Dagoeneko eskarmentua ere baduzu, baina tenple handiko pertsona dirudizu. Normalean lortu izan dut lasaitasun hori tabladuan. Barruko dardara beti existitzen da, eta, neurri batean, funtzio sortzailea

«Txapelketako estutasunak badauka bere erotika eta adikzio pixka bat sortzen du»



«Saiatzen naiz abstraitzen; nirekiko espektatibek ez didate laguntzen egin behar dudana egiten. Belarriak zabaltzen ditut, baina atera ere egiten zait sartzen zaidana»

ere badauka. Behar ere izaten da. Baina kanpotik nahiko ondo eusten diot dardara horri. Patxadaz, tenple onez agertzen naiz saioetara. Aurten txapelketan tenple onez sentitu naiz. Kontziente naiz buruak edo barrenak beti ez duela erantzuten, baina txapelketa erlatibizatzen ikasi dut, bizitza horizonte zabalagoa baita. Neure bizitza bertsoaren jiran daramat nagusiki, baina ez naiz bertsoaren jirara itsutzen. Orain arte egin ditudanak eta gustatzen zaizkidanak ahalik eta gutxien baztertzen saiatzen naiz. Hendaian nire martxara segitzen dut kirolean, futboleak. Horrek asko laguntzen dit bertsoari bere garrantzia ematen, baina baita bere neurria ematen ere. Niri gustatzen zait eta ahal bada nahiko nuke honetan bide luzea egin, baina bizitzari umore osoa bilatzen diot bestela ere.

Beti horrela izan da edo lehen estuago hartzen zenuen? Igual begirada eta perspektiba zorrotzuago nuen lehenago. Ilusio bat bazen, bertsotan egin nahi bat, lekutxo bat egin nahia, ibili nahi bat... eta ibili horretan asentatu naizen arte baneukan irrika, gogo, antsietate puntu hori. Eta horrek lagundu dit nire ahalegin guztia jartzen eta orain arte egin dudana egiten. Nire ahalegin osoa jarri dut iritsi naizen tokira iristeko eta ez daukat esateko lotsarik; nire dedikazio osoa eskaini diot, zoratu gabe, baina serio. Eta orain badut eginaren eta ibiliaren lasaitasun hori. Bide polita izan da eta badaukat bide honetan segitzeko ilusioa, gustatzen zait. Baina, bai, gero eta lasaiago hartzen dut, eta ilusioa kendu gabe.

Horrek aldarazten al du txapelketa prestatzeko modua? Beharbada prestatzeko modua ez, baina prestakuntza hori eta gero edozein emaitza bizitzeko modua bai. Neure gorputza prestatuta dagoen bezala, onena izan ez daitekeenaren aurrean nire burua ikusteko. Behin finallean sartuta, txarrenera ere egun zoragarri bat izango da. Neure haserretxoak eta gorabe-

heratxoak izan ditzaket, baina zer gehiago eskatu txapelketa bati final egun bat baino? Gure herriko kulturgintza, euskalgintza eta izan nahiaren gogo eta irrika guztiak beratzen egoten diren eguna da, eta han parte hartzea nahiko helburu bada txapelketa bati eskatzeko. Horren lasaitasuna daukat.

Finalista askorekin egon ondoren, badirudi finalaren lehia-keta usaina nabarmenagoa dela entzuleen eta kazetarien artean. Segur aski bai, eta badu logika bat, ze hau txapelketa da. Baina txapelketa ez da txapelketa bakarrik. Txapelketaren aurretik “bertso” hitza dago eta horrek ez du lehiaketa eta matematika zentzu huts horretan esanahi handirik. Beste testuinguru sozial, linguistiko eta politiko bat dago eta guk horren gainean egiten dugu bertsotan. Hori da guk eskutan eta kanturako sentitzen dugun lurra, eta, lur hori ez balego, txapelketak berak eta lehiakortasunak jendea ez luke hainbeste erakarriko. Badago alde hori, baina neuk oso presente sentitzen dut bestelako funtzioak badituela txapelketak, eta, orokorrean, bertsoak. Egoera sozial, politiko eta ekonomiko batean ari gara eta bertsoak horri kantatzen dio eta horri eragin egin nahi dio gainera. Gure bertsotarako ama lurra hori da, eta, nik hori sentituko ez banu, bertsoaren zentzua galdua ikusiko nuke. Bertsoa bere lurretik erroak atera eta airean egongo litzatekeen landare bat balitz bezala ikusiko nuke.

Ez duzu Euskal Herriko txapela jantzi, baina duela lau urtekoa ia-ia jantzi izan bazenu bezalako izan zen. Nire oroitzapenen albumean oso argazki konkretua da, oso bizirik daukadana. Buruz burukoan Maialenekin bukaerara iritsi izana beti izango da ohoretxo bat niretzat, baina finalak bestelakoak ere uzten ditu. Eta gerora norbaitek gogorarazten dizunean finaleko ateraldiren bat, txapel bat bezalakoa da. Ze



Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

ederrago horrelako egun batean norbaiten memorian geratzen den bertso zati bat uztea baino. Nik gehiago ezin nion eskatu egun hari.

Finala baino hamar bat egun lehenago BECen izan zineten finalistak. Zer usain edo oroitzapen pizten dira?

Iraganera begira baino datorkizunari begira jartzen zara. Eta korapiloa hasten da barruan zure hesteak josten. Orain arte oso lasai egon naiz, baina han zaudela zure gorputza egun horretan sartzen hasten da, eta zure burua hor doa atzetik. Egun hori tentsioari oso lotuta dago, eta hasten zaizu ura belaunetatik gora. Baina pentsatzen dut jaitziko dela. Ni orain arte oso gorputzaldi lasaiarekin nago eta pentsatzen dut horrela egongo naizela iritsi arte.

Gorputza eta burua aipatzen dituzu. Biak prestatu behar al dira?

Nik hala egiten dut. Hendaietan futbolekin jokatzeko dut eta betiko entrenamendu martxa segitzen dut. Bitxikeria bat gertatu

da. Hendaiako futbol taldean giro frantsesa da nagusi eta bertsoetatik oso aparte bizi dira. Taldeko egunerokotasuna ez dago gure hizkuntzari eta gure hizkuntzaren jirakoei lotua. Askotan gauza exotiko bat bezala ikusten dute. Baina lehenengo aldiz –partida genuen finalaren egunean– eskatu dute egun bat aurreratzeko eta aldatu dute partida eguna. Duela hilabete esan zidaten, eta, egia esan, eskertu diet. Haiek ez dute ezta urrutitik ere bizi guk bizi duguna, baina ikusten dute zerbait bitxia moduan eta haiei ere iritsi zaie zerbait.

Alegia, finalaren bezperan futbol partida jokatu duzu.

Ez, ez, ez dut jokatu. Kanpoan jarri dute, Pauen, iluntzeko zortzietan. Berandu da. Ez naiz joango, baina entrenamendu martxa normala segitzeak laguntzen dit. Bestelako entrenamendu bat ere bada, txapelketatik ateratzeko modua eskaintzen dit eta distantzia jartzen laguntzen dit. Hori mesedetan da, ze bestela burua asko nekatzen da. Niretzat txapel-

ketatik ateratzeko sekulako aukera da nire futbol taldea. Bitxia da, baten batentzat tristea izan liteke, baina niri izugarri laguntzen dit.

Eta burua nola ateratzen da txapelketatik?

Zailagoa da. Zorionez txapelketa dezente badaramazkigu eta horrek erakusten dizu prestatzen, zure burua ezagutzen eta egun horretara ahalik eta ondoen iristeko egin beharko zenituzkeen gauzak egiten joaten zara. Bertso plazen martxari normal eusten diogu, geure artean biltzen gara txapelketako ariketak egiteko, eta gero egunero saiatzen naiz buruari hautsa kentzen. Eta inguruko gertakizunak segitzen ditut, jende normalak bezala, baina hirugarren begi bat zabal-duta.

Txapelketak estutasuna dakar. Bestelakorik ekarriko du hainbeste merezi izateko, ezta?

Bertsolariak garen neurrian, pixka bat masokista puntu hori ere badugu. Bestela, han bezperan nora zoazen guztiz kontziente izango bazina, beharba-

da erotzat hartuko zenuke zeure burua. Prekarietate hartan, jakin gabe, inprobisazio hutsera entregatuta jendetza horren aurrean, bada nahiko suizidio alde batetik begiratuta. Baina horrek sortzen dizun adrenalina puntuak badu bere adikzio puntua ere. Niri gustatzen zait tentsio puntu hori, bestela sentitzen ez ditudan eta dar-dar egiten ez didaten zati batzuk jartzen zaizkit martxan, eta hori ere bada zeure gorputzarentzat eta buruarentzat eremu polit bat. Ni behintzat gustura ibiltzen naiz. Mendizaleek esaten dute arrisku puntu horrek baduela bere erotika, eta txapelketako estutasun horrek ere badu, eta pixka bat adiktiboa izaten da.

Jon Maiarekin aritu zara entrenatzen. Pentsatzekoa da pena handiz bizi izan duzula txapelketatik kanpo geratu izana.

Bai. Gogorra izan da Jon erori zen lekuan erortzen ikustea. Berak hartuko zuen penarik handiena, baina bere atzetik oso gertuan geuk ere hartu genuen. Lezio tristeak dira, baina halakoei laguntzen dizute txapelketari

beste era batera begiratzen, erlatibizatzen. Gerta litezke, edozein da erorkorra, eta zeuri ere lezio bat ematen dizute halakoek. Jon erortzeak esan nahi du edozeini gerta dakiokela, ze astebururo egoten gara harekin eta Jon finaleko maila duen bertsolari bat dela zalantzarik ez dago. Hortik aparte esango nuke Jon izan dela azken lau urteotan Euskal Herriko plazetan jende gehien altxarazi duena eta oraindik ere horretan segitzen du. Pena handia eman dit, ze sentsazioa daukat ia jokatzeko hasi aurretik gertatu zaiola. Baina, tira, Jon Maiak txapelketa eta hurrengo egunean Jon Maia izaten segitzen du, bere oinarriak ondo baino hobeto jarrita.

Kiniela eta porra askotan txapeldun jotzen zaituzte.

Jendea txapelketara doa eta libre da kinielak egiteko. Ni nahiko distantziara bizi naiz aipamen horietatik eta ez dut gogo handirik sentitzen txapelera gerturatu eta usaina hartzeko. Nahiko lan badut nire bertsoarekin, eta, gainera, txapela helburutzat hartzeak pixka bat mugatu egingo nindukeela uste dut. Txapela lortzea beti da balentria bat, ez da batere erraza. Baina, hortaz aparte, txapela lortzea ez da helburu itsu bat. Gertatuko balitz lortzea, hurrengo egunean bertsotan segitzeak zentzu bat izan behar du, eta nik nire bidea *continuum* bat bezala ikusten dut. Eta txapelketak, helburu zehatzak baino, gehiago dira mugarriak edota bitartekoak. Txapela bera izan daiteke bitarteko bat, motibazio bat, egun horretan zure buruari ahalik eta estutu handiena emateko eta jendearen emozioetatik ahalik eta urrunen iristeko. Horretarako balio baldin badu txapelari begiratzeak, ba jar naiteke begira. Balio baldin badu txapelarekin itsutzeko, nik itzala besterik ez diot ikusten. Ez dit irrika handirik sortzen, baina ez dit ukatzeko gogorik sortzen ere. Txapela gauza ederra da, baina txapelik gabe ere gauza zoragarri asko lor litezke eta horiek dira interesgarriak.

«Gure
belaunaldikoak
momentu oso
interesgarrian
gaudela uste dut»

Ba omen zuen Txapelketa Nagusian bere onena sekula eman ez izanaren pena. Arantza ateratzea lortu du, eta nola gainera. Finalerako bidean pauso bakoitza seguru eta elegante eman du, bere estiloan.

Txapelketan saioz saio gero eta finago sumatu zaitugu. Beste finalurreko bat balego ere, zu gorantza.

Egon naiz pentsatzen finalaren eguna ondo aprobetxatu behar dudala. Aurretik egon naiz bi final nagusitan, baina badaukat sentsazioa oraindik ez dudala Euskal Herriko txapelketa betebeterik egin, eta hori izan da aurtengo motibazio nagusia. Pozik eta gustura nago orain arte egindako bidearekin, baina beste finalerdi bat baino nahiago nuke beste hiru final, badaezpada. Finalean beste modu batera joan naitekeela uste dut, ez ardura barik, baina bai dena ematera. Eta tartean hanka sartzeren bat baldin badago, hurrengo faserik ez dago eta egin behar duzuna da hurrengo bertsoaldian berdin-berdin dena ematera joan. Finalurrekoetan beti izaten da kanpoan geratzeko beldurra.

Eta duela lau urte kanpoan geratu zinen. Bazenuen arantza hori ateratzeko beharra.

Finaletik kanpo geratzen zarenean kolpea hartzen duzu, goibelaldi moduko bat. Gero, irakurketa propioa egiten duzu, eta, badakizunean bertso mailan ondo zaudela eta finalean egoteko aukera zenuela eta betiko plazetan eta bestelako ekimenetan segitzen duzula, konturatzen zara txapelketa zure lanaren beste hanka bat dela. Baina finaletik kanpo geratzea baino arantza mingarriagoa zen Euskal Herriko txapelketan nire onena inoiz eman ez izanaren sentsazioa. Horri begira lan asko egin dut, arantza hori kentzeko. Pozik nago horregatik. Gainera, bidean Tolosan kantatzea egokitu zitzaidan. Duela lau urte bertan poto bat egin eta gero nahastuta ibili nintzen, eta, sinbolikoki, hitzor-



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

du garrantzitsua zen. Nire onena emateko gogoia nuen bertan, nire buruarentzat lehendabizi eta jendearentzat gero, entzuleak ikus zezan banentorrela, eta gogotsu gainera.

Zure azalean frogatu duzu txapelketatik kanpo ere badagoela bizitza.

Txapelketak zerrenda bat egiten du, eta edozein emaitza berretsi egin behar da, ona edo txarra izan. Bertsolari dezente dago

txapelketan goreneko emaitzarik egin gabe plazan bizi-bizi dabilena. Urte dezente daramagunok erakutsi dugu bertsoan gure maila. Bi egunekoak edo egun batekoak hamabost edo hogeitaz ibilbidea ez du goizetik gauera ebakitzen, zorionez eta logikaz. Txapelketa, bere gauza onekin eta txarrekin, plaza mota bat da, eta horretatik aparte beste asko daude. Orokorrean txapelketa erlatibizatu egin behar da, nahiz eta gauza

IGOR ELORTZA

Durango, 1975. Sorkuntzari emana bizi da. Bost aldiz jantzi du Bizkaiko txapela. Seigarren Txapelketa Nagusia du aurtengoa, eta hirugarren finala.



on dezente ere badituen. Niri txapelketetatik gehien gustatzen zaidan ezaugarri nagusia da bertsozalea bertsoari, testuari, adien eta zorrotzen dagoen plaza dela. Horrek ematen du aukera norbere nortasuna plazaratzeko eta norbere bertsokera lantzeko.

Nortasun eta bertsokera desberdinak ikusiko ditugu finaleko oholtzan.

Jende dezentek pena hartuko zuen Unai Agirre sartu ez delako, tartean ni neu, oso kolore bereziko bertsolaria delako. Gaudenon artean, bi belaunaldi daudela esango nuke, nahiz eta Amets eta Sustrai oso gazterik hasi ziren eta Beñat ere ezaguna dugun plazan. Gure belaunaldikoak zaleentzako momentu oso interesgarrian gaudela iruditzen zait, ofizio handia hartu dugu, plaza pila bat egin ditugu eta bertsolari eta sortzaile bezala adin on batean gaudela uste dut. Jende askok eskertuko luke bertsolari berri gehiago finalean, eta logikoa da, aurpegi bezala oso ikusiak gaudelako eta bertsokera aldetik badaukagulako estilo egin samarra eta ezagun samarra, nahiz eta beti ari garen hobetzen, fintzen eta zorrotzen. Baina nortasunaren aldetik, bizipenen aldetik, 20 urte gaz normalagoa da antzeko samarragoak izatea 40 urte gaz baino. Hori dena igartzen ari da txapelketa honetan eta segur aski gure momentu onenean gaude. Bakoi-tzak bere bertsokerako joerak bereganatu dituelako eta pertsona bezala ere ja helduaro bete samarrean gaudelako. Geu ailegatu ginelako asko joan da gaztetzen finalisten profila, irauten ari gara eta badirudi zahartzen ari garela. Baina, aldi berean, bertsotarako momentu onena logikaz 30-40 urte buelta horretan izango dela uste dut.

Urteen joana sumatzen da bertsolariengan eta baita inguratzen dituen errealitatean ere.

Uste dut oro har bizi dugula garai bat ideia eta uste oso sendo eta handi batzuk apur bat dardarka ari direna. 2009ko txapelketak garai baten bukaerarekin

bat egin zuen, eta, 2013koak, garai baten hasierarekin. 2009an oraindino krisia zeozer bazen, baina orain krisia gure gorputzean dago. Eta, bestetik, Euskal Herrian aldaketa garrantzitsuak eman dira. Zalantzaz betetako garaia da eta sortzaileentzat oso interesgarria. Iruditzen zait horrek guztiak badaukala eragina, eta horri lotu behar zaio guk geuk ere adin bat badaukagula. Ni kontzienteki ahalegina egiten ari naiz edozein gai 1:1 eskalara ekartzeko. Esaldi potolo edo handietatik ihesi, mezurik indartsuena perspektiba horretatik saltzen ahalegindu nahi dut. Esaterako, Donostiako saioan haur lapurtuen auzian moja baten paperetik aritu nintzen. Nire asmoa ez da Igor Elortzak gai horren inguruan zer pentsatzen duen esatea, moja horren azalean sartzea baizik, esan nahi dudana pertsonaiaren larrutik esatea. Tokatzen zaizkigun rolak asko humanizatzen saiatzen ari garela iruditzen zait. Eta entzuleak ere hori eskertu egiten duela uste dut. Logikoa denez, horren erreakzioa ez da garai epiko bateko erantzun gogor batek sortzen duen berdina, beste erreakzio mota bat da. Baina uste dut jendea hori txalotzen ari dela. Hasten ari den aro baten sintomak direla iruditzen zait. Bakarkako gaietan zein bide aukeratzeko ari diren ere esanguratsua da. Baina, sinplea ez da erraza, eta gai txiki bat ez da garrantzirik gabeko gai bat.

Zuretzat hirugarren finala da. Bidearekin helburuarekin adina gozatu duzula ematen du. Eta, orain, finalean, zer?

Lehen esan dudana bidetik, segi eta segi eta kantatuko nituzke hiru final. Egia da 15.000 lagun aurrean kantatu behar duzunean une batez zalantza ere sortzen zaizula zortziko txiki bat josteko gai ote zaren. Baina nire aurtengo txapelketan helburua garbia zen: txapelketen atal horretan Euskal Herriko txukun bat edukitzea. Horretarako egin dudana lanean buelta asko eman dizkiot zertarako egin gura dudana bertsotan, zergatik naizen bertsolari, bertsola-

«Kontzienteki ahalegina egiten ari naiz edozein gai 1:1 eskalara ekartzeko. Esaldi potoloetatik ihesi, mezurik indartsuena perspektiba horretatik saltzen saiatu nahi dut»

ri izateaz aparte beste zenbat gauza naizen, zein gauzei buruz kantatu nahiko nukeen... Ez zelan erabili errimak eta doinuak, bestelako kontuei eman dizkiet buelta asko. Gero, txapelketa barruan, gauza horiek guztiak maitzeko baldintzak zeintzuk diren aztertzen aritu naiz.

Prestaketa oso landua eta aspaldi samar hasia, beraz.

Oso lan kontziente egin dut, eta garaiz. Normalean berandu samar hasten bazara segituan jotzen duzu errimategia eta halakoak lantzeraz. Aurretik bestelako etxeko lanak egin ditut. Badira hilabete dezente aurreko txapelketako gai guztiak begiratzeko hasi nintzela, egin gura nuen hori egiteko txapelketan aukerak zeintzuk diren ikusteko. Horren ondoren etorri da bestelako lana, bertsotan egiteko lagunekin geratzeko, errimategia lantzea... Eta duela hiru bat urtetik orain urtebetera arte, plazak aprobetxatu ditut inertzia batzuk kentzeko, deseraikitzeke. Lasai joan naiz bertsotara, gozatzeraz eta ondo egitera, hainbeste tematu gabe bertsota ondo osatzen ari ote naizen edo ez. Eta azken urtean bestelako lanean aritu naiz, badira hile batzuk lan diziplinuarekin hasi nintzela. Egia da lan kontziente bat egin dudala inertiak eta joerak kentzeko.

Bizkaikotik koska handia sumatu dizugu.

Bai, hori horrela da. Zergatik den horrela? Ba ezin da jakin, ze hau ez da matematika. Egia da motibazioa, beharrerako ilusioa eta ondo egiteko grina desberdinak direla. Baina horiek ez dira erosten ondoko dendan, eta horien azalpena ematea ez da erraza. Hori horrela dela bai, eta lan dezente egin dudala ere bai.

Nola zaude finalerako?

Trankil nago, ez dut estutasunik sentitzen inguruan entzuten ditudan gauzengatik. Egin dudana behar horren guztiaren emaitza ikus dadin nahiko nuke. Orain arte hala izan da, egin gura nukeen horretatik gertu ibili naiz. Estatistikak dio hiru bider egi-

tea zaila dela, igual finalean ez da egokituko hain egun ona. Tira, ba ez bada egokitzen, orain arte txapelketa on bat egin dudan sentsazioarekin geratuko naiz. Aldi berean, mentalki prest eta bertsotan ondo egiteko moduan nagoela uste dut, eta, egun ona badaukat, ba ikusiko da.

Egia da askok sartzen zaituztela txapelerako borroka horretako kinielatan.

Txapela, txapela, horiek berba handiak dira. Nik hankak lurrean dauzkat. Prest nago eta uste dut ez didala gainezka egingo egunak. Ni ondo banago, ez dut frenorik botako. Baina ez nau txapelak obsesionatzen, eta beldur pixka bat ere ematen dit. Duela lau urteko buruz burukoan Maialen eta Amets izan ziren eta horiek biak dauden denon buruetan. Eta ez da kasualitatea, plazan egiten dutena egiten dutelako da. Buruz burukoan sartzeko bakarrik Ametsek eta Maialenek baino nabarmen samar hobeto egin beharko da, eta hori ez da erraza. Horrez gain, nik Tolosako saioan nire buruari eta jendeari asko erakusteko beharra nuen bezala, Ametsek orain artean ez du halako beharrik sentitu eta iruditzen zait finalean gehiago sakatuko duela. Eta Maialen prestatuta egongo da, seguru. Eta gero, noski, finalerdietatik nire atzetik iritsi diren asko gai dira finalean nire gainetik pasatzeko. Hori guztia kontuan hartuta, ni trankil nago, ez nau kanpoko ezerk presionatzen, gogo itzela daukat eta nire burua bertsotan oso ondo egiteko gai ikusten dut.

BE Cen egon zinen 2005ean. Ze oroitzapen daukazu ordukoaz?

Egunotan horretan pentsatzen egon naiz, ze orain arte ez dut pentsatu BE Cen inguruan plaza bezala. Eta konturatu naiz nahiko ahaztuta daukadala. Zertzelada batzuk eta irudi batzuk etortzen zaizkit, oso plaza handia baina gero ez hain handia, jende asko dagoela eta nahiko gertu... Egia esan, ez daukat oroitzapen oso sendorik. Ikusi egin beharko dut 2009ko finalaren DVDa plaza horretan pixka bat kokatzeko.

2013
TXA-TXA-TX





«Zure burua harritzen duzun fase horretan egotea oso motibagarria da»

Azken urtebetea berezia izan da Sustrai Colina-rentzat. Zer egin nahi ez duen jakitun, egin eta izan nahi duena gero eta garbiago du. Murgian eta Maulen lehen postua eskuratuta iritsiko da BECera. Seguru doa, badaki final oso ona egiteko gai dela, eta horrek bizirik sentiarazten du.

Zure bidean bi koska igo nahi dituzu, eta, bide horretan, klabea izan zen iazko Ipar Euskal Herriko txapelketa.

Uste dut denboraren perspektibatik begiratuta ez dela ezer garrantzizkorik pasa. Oholtzatik hunkituta eta ukituta jaitsi nintzen. Hunkituta, jendeak espero ez nuen txalo zaparrada eskaini zidalako eta oso maitatua sentitu nintzelako, eta, ukituta, oholtzan oso gaizki pasa nuelako. Uste dut saio batean bertsotan nabilenetik hain gaizki ez dudala sekula pasa, nahiz eta gero kanpora transmititzen diren sentsazioak bestelakoak izan. Sentimendu kontraste nahaste-borraste bat neukan, eta hori dena dekantatzen utzi beharra neukan. Konturatu nintzen txapelketa bati aurre egiteko jarrera ez zela hori. Orain arte lana egiten nuela baina gauza gehiegi uzten nituela zoriaren esku. Badaude gauza batzuk pentsatuta, lotuta, hausnartuta eraman behar direnak. Ordua arte inkontzienteki egiten nuena kontzienteki egin nahi izatera pasa nintzen. Bestalde, konturatu nintzen baneramatzala hamar urte ehun plazatik gora eginez urtean, eta erabakiak hartzeko fase batean nengoela: 31 urte, bertsolari izateko ametsa beteta... Ze bertsolari izan nahi nuen erabakitzeko fase horretan nengoela.

Urtebete pasa duzu hausnarretan, txapelketarako prestaketa aldatu egin da?

Prestaketa aldatu da, gauzak ikusteko modua aldatu da eta jarrera ere aldatu da. Esango nuke bertsolaria bera ere aldatzen

ari dela. Zer egin nahi ez nuen garbi edukitzetik egin nahi nuena garbi edukitzera pasa naiz. Urtebete pasa dut ikusten nuen guztia, pelikula, liburuak, erakusketak, musika... apuntatzen, zer gustatzen zitzaidan gauza bakoitzetik. Konturatzen nintzen guztietan gauza antzekoak gustatzen zitzaizkidala, eta ez zela kasualitatea gustatzen zitzaidan hori gustatzea. Bazegoela hor azpian hari lotzaile bat edo. Eta pentsatuz joan naiz hori guztia nola eraman bertsotara. Nire inguruko jendeak ere lan handia egin du nirekin, kontentzitu nauelako posible zela. Eta txapelketa batean bat egiten dutenean momentu pertsonal batek, lanketa batek eta jarrera batek, emaitzak ere horren araberakoak izaten dira, nahiz eta hasi aurretik oso zaila den jakiten noraino iritsiko zaren.

Izan nahi duzun horretan, non ikusten duzu zure burua?

Orain arte sentitzen nuen bezala bide agortu bat, orain sentitzen naiz bide baten hasieran. Baina, era berean, ikusten dut azken hamabi urtetako bide bat ere badaukadala. Ez dut puntu eta aparte bat egin nahi. Oso kontziente naiz azken hamar-hamabi urteotan egin dudanak balio didala, ez dela alferrikakoa eta hor daukadala oinarri bat, iragan konpartitu bat, kantatu dudala mila plazatan, mila egoera ezberdinetan, atera naizela gai txarrenetatik, disfrutatu dudala, sufritu dudala... Hori da nire oinarria. Ni ez nator esatera ahaztu ezazue lehengo Sustrai. Ez, nire erronka da bide hori jendearekin batera ematea. Gainera, uste dut artistikoki oso zaila dela hori. Ez naiz inoiz aldaketa erradikalen oso zale izan. Orain dela lau hilabete ez nekien txapelketa honetan deskubritu ditudan gauza batzuetan hain eroso sentituko nintzenik. Adibidez, Maulakoa bezalako bakarkako batean hain gustura sentituko nintzenik, eta orain dela hamabost egun bai. Bidean ere topatzen zoaz. Gero agian hemendik sei

hilabetera ikusten dut pareta bat daukadala aurrean eta ezin dudala maniobratu. Baina ikusten dut ibilbidea dudala, eta sentitzen naiz oso eroso bide horretan, zure burua harritzen duzun fase horretan. Eta hori oso motibagarria eta bizigarria da bat-batean aritzen den batentzat.

Zure burua harritzeaz gain, emaitzak ere ekarri dizkizu: bi saio irabazi dituzu.

SUSTRAI COLINA

1982an jaioa Biarritzen, Urruñan bizi da txikitatik. Kazetaritza eta bertsolaritza uztartzen ditu. Azken hiru txapelketetan finalista izan da, laugarrena du aurtengoa.

Ane Arruti



«Ez dira agian mitinetarako garaiak. Uste dut hitzak eta egoerak oso gastatuta iristen zaizkigula eta gauza horiek esateko beste modu batzuk topatu behar ditugula»

Horrek ere laguntzen du. Bi saio irabazi ditut eta bietan puntu mordoxkarekin. Aurrekoan ere bi saio irabazita pasa nintzen finalera, baina justu-justu. Oraingoan hirugarren, eta aurrekoak atzekoak baina gertuago. Garrantzitsua izan da berriz ikustea txapelketa batean goi samarrean ibil nintekeela, eta, gainera, nirea eginez. Esaten dudanean finalean pare bat koska gora egiteko intentzioa dudala ez da airera botatzen dudalako gai naizela hori egiteko, jakinda ere ez dela erraza. Kezkatzen nauena da ez izatea apaingarri bat. Hiru final pasa ditut eta badakit arriskua dagoela finala egun-pasa hartzeko. Baina final batek eskatzen du uneoro bertso bakoitza borrokatzeko jarrera bat. Egunaren bukaeran horrek ematen eta kentzen dizu, momentu txar horietan zenbateko gaitasuna eduki duzun eusteko. Gauza bat garbi eduki behar da: agian zure azken finala da. Begira ze pasa zaion Jon Maiari eta ahaztu egiten zaigu orain lau urte Igorri pasa zitzaiola. Eta bera, klase handiko bertsolari bat izateaz gain, jarrera eredugarria daukan pertsona bat da. Esaten da mantentzea dela zailena, baina erori eta berriro gora egitea... Orain arte uste dut hiruko final nahiko onak egin ditudala, baina badauzkat damuak. Horregatik badaukat grina final oso on bat uztekoa, bertso bakar bat alferrik ez galtzeko grina hori. Ikusten dut beste urtetan baino tentsuago jartzen nauela, baina bizirik sentiarazten nau. Oso sentsazio ederra da final bati ekiteko, jakitea agian tentsio horrek kalte egingo dizula baina edukitzea segurantz zuloan nagoenean aterra egingo nauela hortik.

Eta txapelerako grina baduzu?

Ematen du topiko bat dela, baina ez diot begiratzen txapelari. Ez naiz hasiko hauek hasi diren bezala esanez bati ez diola erakartzen, besteak ez dakit zer... Nire obsesioa da ahal bezainbat borrokatzea nire buruarekin egunaren azkenerraino. Horrek

ekartzen badit besteak baino saio hobea egitea eta borrokan egoitea, oso ongi etorria, ez diot uko egingo. Errealista naiz eta badaikit jende batek nik baino aukera gehiago dituela txapela janzteko. Jende horrek jantzi behar badu jantzi dezala, bere maila emanda, eta ni baino hobeto eginda.

Murgiako emaitza, zure espresioari erreparatuta, harriduraz hartu zenuen.

Saioko harridura baino, nik uste urtebeteko harridura zela. Murgiara zalantza itsaso batean joan nintzen, banekien lana eginda neukala, baina ez nekien ze saio egingo nuen. Gainera erabakita neukan besteen saioa ez entzutea. Ez nekien besteak nola ari ziren. Aurreko kanporaketetatik Beñat eta Aitorri irabaztea oso zaila ikusten nuen eta ez nuen bukatu saioa oso sentsazio onarekin. Nire lanik txarrena azkenengoa izan zen, kartzelakoa. Sentitzen nuen borrokan nengoela, saio itxurazko bat eginda nengoela, baina ez nekien zenbat puntu izango ziren.

Murgian irabazita, Maulera. Plaza berezia zuretzat.

Oso berezia izan da. Gauza asko zeuden: bertso eskola ez zegoeanean ezagutu dut Maule, eta azken urteotan kantatu dut dezentetan; jende batentzat, muga pasa ezin duena eta hemen inguruan ikusten dudana egunero, banekien txapelketako saio bat zuzenean ikusteko azken aukera zela aurten; banekien BECera Mauletik joango denak autobusa 06.30ean duela; hamabi urte daramatzat Euskal Herriko txapelketan kantatzen eta ez nuen inoiz kantatu mugaz alde hone-tako hiru lurralde hauetan... Euskal Herriko txapelketan Murgian, Maulen eta Barakaldon kantatzeko aukera izango dut. Nik uste jende bati horrek zer pentsa eman beharko liokeela. Gainera, azken finalaurrekoan, ikusten duzu momentu kolektibo bat eta zure momentu intimo bat, bat datozela. Gero oso kurio-
soa da, Mauletik ordu eta erdira bizi naiz, baina kulturalki eta animikoki oso gertu sentitzen dudan errealitatea da.



Bob EDMÉ

Kartzelako lanera bitartean bosgarren zindoazen. Baze-nuen sentsazio hori?

Ikusten nuen ez nintzela nire bizitzako saioa egiten ari, baina pila samarrean joango ginela nabaritzen nuen. Unai sumatzen nuen ondo, Jone ere bai ofiziotan... Niretzat zailagoa zen Maulen 695,5 puntu egitea Murgian 706 baino, tokatu nintzelako "bat"-a, niretzat nahiko deserosoa, ez nuelako etsi saio osoan, eduki nuelako jarrera bat nire buruarekin borrokatzen se-

gitzekoa... Badakit orain dela ez horrenbeste arte, agian egoera berdinean etsi egingo nuela.

Zure kartzelako lana izan da txapelketako puntuatuena eta txalotuena, beroen hartu dena.

Etorri zitzaidan hirugarren ideia edo izan zen. Lehenbizikoa baztertu nuen ez nuelako metabertsolaritzarik egin nahi. Bertso eskolan egin nituen horrelako gai batzuk eta banuen gogoia, inork espero ez dituen gaiak, baina toke unibertsal batekin,

toke *ñoño* bat baina graziosoa bihur litekeena. Zalantzekin hasi nintzen. Hotzean pentsatuta pixka bat erridikulua ere bade-lako. Ametsi ere pasa zitzaion Elizondon. Badakizu zerbait ezberdina egiten ari zarela baina hasterako beti duzu duda nola hartuko duen jendeak. Ikusi nuenean lehenengo bertsoa nola hartzen zen, lasaitu egin nintzen, ikusten nuen pasako zela.

Elortzak «sinesgarritasuna» aipatu zuen txapelketako hitz

gako gisa. Ikusi duzu joera gai potoloetara joan beharrean beste bide batzuk jorratzekoa?

Uste dut sinesgarritasuna dela bertsoaren hitza. Bertso bat on bihurtzen duen baldintzetako bat sinesgarria izatea da, errealityatearekiko, kantatzen duenarekiko, publikoarekiko... Ez dira agian mitinetarako garaiak. Uste dut hitzak eta egoerak oso gastatuta iristen zaizkigun garai bat bizi dugula eta gauza horiek esateko beste modu batzuk topatu behar ditugula. Horretan gabil-tza, batzuetan azierto gehiagorekin eta beste batzuetan gutxiagorekin. Badut sentsazio bat ere ez dela bakarrik gai txiki eta gai handi, dela ere guk, entzule bezala, zer kontsideratzen dugun gai handi eta gai txiki. Nik kanta dezaket preso baten inguruan, oso modu xumean, istoriotxo bat kontatuz. Baina iruditzen zait jendeak "preso" hitza entzuten duenean iruditzen zaiola betikoari buruz ari garela. Gauza bera langabeziarekin edo krisiarekin. Gai batzuk gastatu egin ditugu, eta irudipena dut arbuia-tze moduko bat ez ote dagoen horiekiko, nekadura pixka bat. Horrek guri problema bat sortzen digu, ze nik horri buruz ere kantatu nahi dut. Hilero joaten naiz bisitan, lagunak dauzkat langabezian, lagunak dauzkat Madrilera Audientzia Nazionalera doazenak... Hori ere nire mundua da, baina topatu behar dut bide bat hori aipatzeko, xumetasun hori galdu gabe eta jendeari betikoaz ari naizela ez iruditze-ko. Ertzak dira gakoa. Audientzia Nazionalera doan inputatu bat ez da bakarrik militante politiko bat, izan liteke emaztea, ama, langabetua, irakaslea, *spinning* saioetara apuntatzen dena... Denok gara mila gauza, eta gako bat izan liteke pertsonak agertzea, eta pertsonak bere baitan daramatzan egoerak. Iturriagak oso ondo kantatzen du Gu Ta Gutarrak taldean, «maite ditut maite gure bazterrak, baina bizi dituzten pertsonen eskerrak». Nik ere maite dudan herri hau pertsonengatik maite dut, eta uste dut jendearengana iristeko bideetako bat izan litekeela pertsonak agertzearena.



Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Behatzailea da, detaileak ikusi zalea, sentibera, ahots eta begirada suabekoa. Pertsona diskretua da, lotsatia, baina oholtza handietan eroso sentitzen dena. Bertsotan ari denean zer sentitzen duen esplikatu nahian dabilenean piztu egiten da.

Finalean zaude. Zure ametsa tamaina horretakoa al zen?

Egia esan, ez dakit. Gogoratzen naiz 10 urte nituenean nola joan nintzen lehenengoz finala ikustera Belodromora, 1997an. Liluratura geratu nintzen. Izugarria iruditu zitzaidan bertsoen aurreko isilunea, eta, gero, bertsoaren ondoren, izaten den leherketa. Ez nuen inoiz pentsatuko ni horrelako leku batean egongo nintzenik. Txapelketa honetan ere ez nuen helburu bezala finala jartzen. Sentsazioa baneukan ez nengoela hain fuerte bertso-tan. Tira, boladak izaten dira. Orain dela lau urte olatuaren gainean iritsi nintzen txapelke-

BEÑAT GAZTELUMENDI

Kazetari lanetan aritzen da. Bigarren egin zuen 2007ko eta 2011ko Gipuzkoako Txapelketan. Bigarren aldiz parte hartu du Txapelketa Nagusian, eta lehen finala du.

amagoia.mujika@gaur8.info

«Dagoeneko ez naiz Gipuzkoako finalera iritsi zen mutiko hura»

tara eta aurrean sentitzen nuen beste batzuk zetoze olatuaren gainean, eta nik txapelketa lasaia hartzeko aukera nuela. Eta igual lasaitasun horregatik iritsi naiz honaino. Sentitzen nuen bazirela urte batzuk bertso-tan ez nintzela ari nahi nuen bezala, ez niola nire ahotsari gehiegi sinesten. Eta azkeneko hilabete hauetan berriz konektatu dut nire buruarekin. Igual finalak baino gehiago betetzen nau sentsazio hori edukitzeak. Finala gauza ederra da, baina nik badakit zer den plazara joan eta kantatzen duzun hori sinestea edo ez. Hori berreskuratzea niretzako nahikoa zen.

Final eder bat josteko osagai asko dituzu eskura. Finalista berria, plaza handietan hazi egiten dena, galtzeko ezer ez duena...

Umetan eta finalean pentsatzen nuenean nire burua hazten ikusten nuen. Beti izan naiz egoera estuetan hazten den pertsona. Orain, zenbat eta gertuago egon, orduan eta errespetu han-

«Sentitzen nuen bazirela urte batzuk bertsotan ez nintzela ari nahi bezala, ez niola nire ahotsari gehiegi sinesten. Azkeneko hilabete hauetan berriz konektatu dut nire buruarekin»

diagoa ematen dit finalak. Badaukat konfiantza ondo egiteko, barruan daukadana emateko, baina konturatzen naiz lau urtean behin izaten dela, jendea horren zain dagoela eta finalak ona atera behar duela. Badakit jendeak nik final ona egitea espero duela. Momentu honetan errespetuaren eta ilusioaren arteko sentsazioa daukat. Bestetik, finalista berria naiz, haize berria. Ez naiz oso koloretsua bertsotan, nik nire erara egiten dut eta pertsona bezala ere diskretu samarra naiz. Baina niretik egiten badut eta nire nortasuna agertzen badut, final honek izango du duela lau urte ez zeukan zerbait.

Diskretu samarra zarela diozu. Harritzekoa da zer lotsatia zaren oholatza azpian eta nola hazten zaren oholatza gainean.

Zaila da esplikatzea zer sentitzen dudan nik bertsotan hasten naizen momentuan. Barruko engranajeak martxan jartzen direnean, sekulako liberazioa sentitzen dut. Kanean beti kostatzen zait hitz egokiak aurkitzea, berez ahots oso ahulekoa naiz eta sentsazioa izaten dut esan behar dudana ez dela besteek esaten dutena bezain garrantzitsua, ez dudala gauza berririk esateko. Eta, bertsotan, kontrakoa. Gaia entzun eta jendea begira ikusten dudanean sentitzen dut jende hori esango dudanaren zain dagoela. Eta nire baitan lehia interesgarri bat sortzen zait barruan ditudan hitz horiekin. Batzuetan hitzek irabazten dute lehia hori eta esan nahi ez ditudan gauza batzuk esatera eramaten naute, eta, beste batzuetan, nik irabazten dut lehia. Eta hori gertatzen denean sentsazio ederra izaten da. Txapelketa honetan bigarren horretatik gehiago izan dut, eta horrek laguntzen dit nire lotsak gaintitzen, eta zerbait esateko badudala sinesten.

Zortzikotearen barnean nola sentitzen zara?

Denak gertukoak dira, eta plaza asko partekatu ditut haiekin. Duela sei urteko Gipuzkoako finalean oso mimatua sentitu

nintzen. Uste dut jendeak beldurra zuela Illunbera atera eta ez ote nintzen bertan geratuko erantzun ezinik. Baina ordutik joan dira urte batzuk, ezagutzen naute, eta bat gehiago izango naizela uste dut. Konturatzen naiz bakoitzak gure onena ematen badugu, ni naizela zortzigarren egiteko aukera gehien dituen. Baina ez naiz Gipuzkoako finalera lehenengoz iritsi zen mutiko hori, oraindik nortasuna ondo egin gabe eta bertsolari bezala ere ondo egin gabe. Plazan ibilbidetxo bat osatu dut azken sei urtean eta lasaia egoingo naiz zortzikote horretan. Nahiago dut bat gehiago sentitu, ez dut finaleko berria bezala sentitu nahi.

Zein da agertu nahi duzun ahotza?

Badaukat joera urduri eta larri nagoenean potolokeriara jotzeko, eta uste dut nire indargunea justu bestea dela. Lurretik kantatzea, deskribatzea, detaile txikiei kantatzea. Nahiko pertsona sentibera naiz eta detaile txikiek asko eragiten didate. Nire bertsokera detaile txiki horietan marrazten dela uste dut. Lasai nagoenean lortzen dut hori, baina urduri nagoenean gehiago jotzen dut potolokeriara. Nahiko nuke detaile txikiei kantatu, hori da nire helburua. Altsasukoa saioan ia bukaera arte ez nuen lortu, Murgian ia hasieratik lortu nuen eta Elizondon ez nuen lortu saio osoan. Finalean hori lortu nahiko nuke.

Sentitzen duzu oro har bertsozalea gehiago dagoela detaile txikiei begira?

Hori da finalak daukan kontraesan bat. Finala poz kolektibo bat da, leherketa bat. Bere horretan finala bera bada potolokeria bat. Iruditzen zait gure lana ez dela potolokeria horretara jotzea, gehiago dela potolokeria horren ertzak topatzea. Euskal Herrian gatozen egoeratik gatoz eta diskurtso borobil samarrak entzutea tokatu da, denok bilduko gintuzten diskurtsoak behar genituelako. 2013an uste dut jendeak kontraesanak bilatzeko beharra duela, itzalguneak topa-

«Zaila da
esplikatzea zer
sentitzen dudan nik
bertsotan hasten
naizen momentuan.
Barruko
engranajeak
martxan jartzen
direnean, sekulako
liberazioa
sentitzen dut»

tzekoa, eta horretan ikusten dut gehiago nire burua.

Zure haurtzaroari oso lotuta zaudela iruditu zait beti.

Denok hala gaudela uste dut. Nik haurtzaro zail samarra izan dut. 8 urte neuzkanean urtebete gaixorik eman nuen, ezin ibili, gurpil aulki batean. Eta egokitu zitzaidan nire buruari normalean adin horretan egiten ez diren galderak egitea. Ume garaiak oso gorputzaren garaiak dira; dena ukitu, jolas egin mugimenduan, korrika egin... nik urtebete pasatu nuen eserita eta geldirik. Buruak geldi egon behar horretatik ihes egin beharra dauka eta nire kasuan bertsoak izan ziren ihesbidea. Urtea eman nuen bertsoak entzuten, idazten, ikasten... eta orain naizenaren parte handi bat hor marraztu zela uste dut. Patxada izan nuen inguruari begiratzeko. Askok drama bat bezala bizi izango zuten geldirik egon beharra. Niretzat, orain begiratuta, zorte bat ere izan zen. Oso lotuta nago esperientzia horri eta sentsazio haiei eta uste dut lotua segitu behar dudala. Askotan bizitzaren inertzien arrastaka eramaten gaituzte eta benetan garen hori ume garaian marraztua egoten da. Bertsotan horrekin bat egin nahiko nuke.

Gauza txikiak ikusten ikasi zenuen garai hartan.

Begiratzen ikasi nuela uste dut.

Batzuetan irudiak ikusten omen dituzu bakarkako saioa gaia entzun eta gero.

Egun ona baldin badut, bai. Iru-dia ikusten badut, eszenan sartu naizela esan nahi du. Seinale ona izaten da. Hitza ikusten badut, bakarkakoa potoloago joango da segur aski. Irudia ikusten badut eta eszenan sartzen banaiz, segur aski sinetsi egingo dut nire ahotza eta bertso on bat izango da niretzako. Hitzetik abiatzen banaiz, ez banaiz eszenan sartzen, bertso onak joan daitezke, baina hotzago.

Final nagusira iritsi den lehen donostiarra zara.

Bai. Anaiak eta biok beti esan izan dugu añorgarrak garela, eta oso barruan daukagu Añorga. Baina egia da Donostiari ere zor diogula gure bertsolari izatea. Oso gazte hasi ginen Donostian bertan saio txikietan, eta horiek antolatzen aritzen den jende horri zor diogu donostiarrak garela sentitzea. Donostia asko aldatu dela uste dut, gainera. Gu hasi ginenean gure adinekoek arraro begiratzen ziguten, bertsolaritza ez zen gazte batek eduki zezakeen ohiko zaletasuna. Baina gero eta gehiago sumatzen dugu gure inguruan jendea bertsozalea dela, jendeak oso barrutik bizi duela bertsolaritza eta orokorrean euskal kulturetzak eskaintzen duela bizitzeko modu bat. Donostia asko ari da aldatzen.

Donostiako finalaurrekoan Juan Karlos Izagirre alkatea aritu zen Info7 irratian saioa komentatzen.

Berez ez luke nabarmentzekoa izan behar, egoera normala beharko luke. Bertsolaritzak pisua dauka euskal kulturetzan, batez ere astebururo antolatzen den saio sorta ikusita, eta hiri-burutako alkateek bertsolaritzaren berri ez izatea biztanleriaren zati handi bati bizkarra ematea da. Pozten naiz Donostiako alkatea bertsozalea delako, eta, batez ere, interesa agertzen duelako.

Finalaren bezperako egunak nolakoak izaten dira?

Ahal dudan neurrian aurretik egindako lana egiten segitzen dut. Oartzunen ibili naiz *Xamoa* [Arkaitz Oartzabal] eta Alaia eta Jon Martinekin biltzen eta azken egunetan ere hala egingo dut. Eta, gero, koadernoko lana. Ez igual hainbeste bertsoak idazten, munduan kokatzeko lana egiten baizik. Elizondoko saioaren ondoren zurrumbilo batek inguratu nau, finala asko sumatu dut nire inguruan. Hortik atera eta berriz munduan kokatuta joan nahi dut finalera. Azken egunetan isolatu egingo naiz hori egiteko: irakurri, kokatu, ertzak topatzeko jarrera hori landu eta asko lo egin.



Finalaurrekoetan es-
tu samar ibili da.
Hala ere, gailurrera
iritsi gabe aise lortu
du finalerako txar-
tela. Jende asko ha-
rritu da, Aitor Mendiluzeren in-
dargunea horixe baita, beti
segurutik aritzea eta egoera era-
bat kontrolpean izatearen sen-
tsazioa saltzea. Beretzat laudo-
ria ere bada jendea harritze
hori, beregatik asko espero den
seinale. Baina sekulako gogoia
dauka zorra kitatzeko, eta fina-
laren egunean bere maila ema-
teko. Ez da akuilu makala.

**Finalaurrekoetan sufritu egin
duzun sentsazioa izan da.**

Murgian ez nuen sufritu, baina
ez nintzen gustura gelditu. Saio-
an zehar momentu eta sentsazio
ezberdinak bizi izan nituen, erraz
aritzetik tentsio faltara, eta ez
nuen saio borobil bat egiterik
izan. Maulen, aldiz, erabat lotuta
sentitu nintzen, bertso-rik ekarri
ezinda bezala, eta ez nuen saioan
sartzerik lortu arratsalde osoan.

**Askorentzat harrigarria ere
izan da Mendiluzeren «ahulda-
dea» ikusi izana. Beti oso segu-
rutik eta oso ziur aritzen den
bertsolaria zara.**

Ez dakit ahuldadea izan zen edo
momentuan lotuta sentitzea
besterik gabe. Prestatzen aritu
naizenean nahiko ondo sentitu
naiz, baina ez dut plazan hori is-
latzerik lortu, eta zor horrekin
geratu naiz. Jendea harritu iza-
teak badu alde positibo bat, zen-
bait zalek nirekiko izan dezake-
ten konfiantzaren ondorioz izan
daitekeelako, baina ez dut ho-
rrekin itsutu nahi, nire egun
txarra pasa izatea eta hurrengo-
an goragotik aritu ahal izatea
espero dut besterik gabe.

**Teknikak garrantzia dauka,
baina baita buruak ere. Kon-
tzentrazioa, eustea, ez erortzen
uztea... Nola lantzen da hori?**

Txapelketa baten aurrean presta-
kuntzaren zatirik zailena alde
psikologikoa da hain zuzen ere,
bakoitzak zer egin nahi duen eta
nola proiektatu nahi duen eraba-
ki eta gauzatzea nolabait ere. Ho-
rretarako nork bere burua ezagu-

AITOR MENDILUZE

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko
bertsolaritza irakaslea da. 1995ean eta
2007an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa
irabazi zuen. Bosgarren finala du.

amagoia.mujika@gaur8.info

«Prestaketan
ondo sentitu
naiz, baina ez dut
plazan hori islatu
eta zor horrekin
geratu naiz»

tu behar du, eta txapelketaren
eta bertsoaren beraren aurrean
kokatzen jakin. Ez dakit esperien-
tziaren, izaeraren edo inguru-
aren eraginez den hori, denak
izango du bere parteia ziurrenik
ere. Dena dela ez da erabat baka-
rrik egiteko lana, inguruan ahol-
kuak eman eta kokatzen lagun-
duko dizuten pertsonak izatea
beharrezkoa dela uste dut.

**Laugarren final nagusia da zu-
retzat. Final guztiek daukate
beren momentua eta beren ga-
rrantzia. Zer arrasto utzi dute
zugaurreko hirurek?**

Bueno, ukatzerik ez dago ez dire-
la berdinak; tarteko lau urteak ez
dira alferrik izaten eta bakoitza-
ren momentua asko aldatzen da
epe horretan. Lehen finala oso
gauza handia da, baita handiegia
ere zenbait aspektutan, baina
ilusioz eta mugarik gabe bizitze-
koa. Nire kasuan lehenengo fina-
la konfirmazio moduko bat izan
zen, 95eko txapelketan irabazita-
ko lekua berresteaz harago joate-
ko pausoa. Bigarren finala BECe-
ko lehenengoa izan zen, niretzat
momentu berezia lanean eta in-
guruan, eta trantsizio moduko
bat zentzu askotan. Eta hiruga-
rren finala ere berezia izan zen;
beste zentzu askotan historikoa
izan zen finalak aurrerapen bat
suposatu zuelako nire bertso-
gin-tzan, nahiz eta finalean bertan
nahi bezainbeste erakusterik lor-
tu ez.


**Eta zein helmuga duzu lauga-
rren honetan?**

Final honetan aurrekoetan izan
dudan helburu bera dut; bertso-
tan egitea, alegia. Baina final ho-
nek ere bestelako momentu ba-
tean harrapatzen nauela uste
dut. Bertsoan ondo egitea ez da
nahikoa, norbere gustuko jardua
egitea da azken helburua, eta
horretan saiatuko naiz. Gaiei
ikus-puntu ezberdinetatik hel-
tzea, teknikaz haragoko ekarpe-
nak egitea eta nolabaiteko ukitu
pertsonal bat uztea nahi nuke.
Lortuko dudan edo ez ikusteke
dago...

**Teknikoki bertsoa zuzen joste-
ari garrantzia ematen diozu,
teknika bada zure indargunea.**

«Gaiei ikuspuntu
ezberdinetatik
heltzea, teknikaz
haragoko
ekarpenak egitea
eta nolabaiteko
ukitu pertsonal bat
uztea nahi nuke.
Lortuko dudan edo
ez ikusteke dago...»





Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Eta edukia? Zer-nolako garrantzia ematen diozu eta nola lan-tzen duzu hori?

Teknika zaintzea gustatzen zait, teknikarik gabe bertsoa ez delako bertso, baina testu guztietan teknikak mezuaren menpeko izan behar du beti. Edukiari dagokionez joera batzuetatik aparte ibiltzea nahi dut, gaiei heltzerakoan zerbait eskaintzen eta betikoetatik ihes egiten, eta nire izaeraren alde ezberdinak nolabait bertsoratzen. Zaila da zer eta nola adieraztea, irudipen edo jarrera bat gehiago da zerbait konkretua baino.

Finalaren aurreko egunak nola antolatzen dituzu? Lanean normal segitzen duzu, entrenamenduak taldean, bakarka...

Aurreko aste osoan lanean ariko naiz normaltasunez, eta, bertsoei dagokienez, gehiegi ere ez ari-

tzen saiatuko naiz, behin edo bitan gehienez ere. Agur bat pentsatu, doinu batzuk errepasatu eta askoz gehiagorik ere ez. Ez dago sekretu berezirik, normaltasun erlatibo bat mantentzea egokiagoa dela esango nuke.

Finala bada norberak bere buruarekin daukan gerra moduko bat. Zer da gehien landu behar duzuna zure ustez?

Norbera buruarekiko zintzo jotkatzen saiatu behar dela uste dut, koherentea izaten, eta errazenera makurtu gabe aurrez definitzen saiatzen zaren bide horretan pauso bat gehiago aurreratzeko ahalegina egiten. Tentagarria izan daiteke batzuetan txalo errazera makurtu edo betiko bideetatik jotzea, baina horrelakoetan zer egin nahi duzun, eta batez ere zer ez duzun egin nahi, argi

eduki eta horrekiko koherentea izatea beharrezkoa dela uste dut bertsoan ondo aritu ahal izateko. Nire kasuan ez dut bertsoan ondo egiterik gustura egiten ez badut.

Finaleko zortzikoteari begira, nola ikusten duzu taldea eta nola bertsolari bakoitza?

Taldea oso interesgarria dela esango nuke, oso nortasun eta bertsoakera anitzeko bertsolariak daudela bertan, eta bakoitzak aski esperientzia eta maila baduela finala bera interesgarria egiteko. Normala denez ez dute denek %100a finalean ematerik lortuko, baina denek dute final on bat egiteko aukera nire ustez.

Banaka hartuta Amets erraz ari dela bistakoa da, maila izugarria izateaz gain erraztasun harrigarria duela maila horretara

hurbiltzeko. Askoren ustez faboritoetako bat izateak mesede edo kalte egingo dion jakiteke dago, baina presio hori eraman eta hortik ere indarra ateratzeko gai dela uste dut.

Sustrai forma oso onean dagoela erakusten ari da txapelketa honetan, baina aurreko saioetan eman duena baino gehiago emateko gai dela uste dut. Aurreko finalaz gain azken lau urteotako saioetan argi erakutsi duela uste dut.

Igor, azken txapelketan erori eta honetarako berriz jaikitzeaz gain, inoiz egon den ondoen iritsi ote den irudipenarekin nago, eta final borobila egin dezake. Oso maila altua erakutsi du bi kanporaketetan, eta lan hori borobiltzeko aukera paregabea izango du BECen.

Beñat berria da finalean, baina finalean bakarrik, azken urte-

otan plazaz plaza asko eta ondo dabilelako. Txapelketan esperientzia handia du berak ere, eta, maila onean aritzeaz gain, erregularitasun handia duela uste dut. Finalean egoerari aurre egingo diola uste dut, eta saio ona egin dezakeela.

Unai Unai da, bere akats eta bere indargune guztiekin. Azken txapelketatan kanporaketa batean puntuazio baxua eta bestean altua aterata izateak erabateko erregularitasunik ez duela erakusten badu ere, finaleko bertsoaldirik onenetako bat sinatzeko gai dela ere erakusten du.

Maialen inkognita bat izan daiteke askorentzat, oraindik txapelketan kantatzeko dagoelako. Oso maila altuan ari dela esango nuke ordea, eta txapelketako oholtzako erritmo falta mailarekin, esperientziarekin eta izaera eta nortasun bereziarekin orekatzeko gai dela uste dut. Txapelaren pisurik gabe ariko dela uste dut, txapela bera baino erantzukizun handiagoak badituen jakituen.

Aitor oso maila altuko bertsolaria da, gaitasun tekniko handi bati nortasuna eranstean joan dena, eta aurreko finaleko esperientziak eta Gipuzkoako txapelak egonarri nahikoa eman diotena gainera.

Txapelketaren datuak oso esanguratsuak dira. Jendetza dabil, asko geratu dira sarrerarik gabe. Horrek ardura sentiarazten al du?

Txapelketa honetan zaleen erantzuna harrigarri bezain pozgarria izan da, indar kolektibo eta poz konpartitu baten bila joan izanaren sentsazioa uzten duena. Orain horri erantzuteko unea dela sentitzen dugu, bai geugatik eta baita txapelketa ez ezik bertsolaritza osatzen dugun guztiongatik ere. Hori da gure ardura eta hori bera da ardura horri aurre egiten laguntzen digun indarra ere, geu baino askoz handiagoa den zerbaiti forma ematen ari garen sentsazio konpartitu hori. Oholtzan erantzukizun handia sentituko dugu denok, baina baita pribilegiatuak izateko sentsazio bat ere.

Komiki bitartez plazaratu ditu txapelketaren inguruko bere sentipenak; «terapia» gisa balio izan diotela dio, «norbaitek esango du ordu horiek errimak lantzen pasa izan banitu hobe izango zela. Ziur aski bertsotarako bai, baina niretzako ez». Txapelketak gustuko ez dituen sentimenduak esnarazi dizkio eta bere azkena izango dela dio.

Bi saio egin dituzu, bi finalurreko. Zer moduz sentitu zara?

Oso ezberdin saio bietan. Txapelketa hau lasai hartzeko asmoa neukan, eta Tolosara joan nintzen oso lasai; oso gustura aritu nintzen bertsotan, baina beharbada lasaiegi, txapelketa batek behar duen kontrol puntu horren faltan. Horren ondorio izan ziren beharbada bi potoak. Zoritzarrez, bigarren buelta etortzen da eta hor berriro egin nuen topo txapelketatik nahi ez nituen alderdi horiekin guztiekin: kalkuluak, puntuak... Elizondora ez nintzen hain lasai joan. Hanka bat nabarmen kanpoan neukala sentitzen nuen, benetan prest nengoen finaletik kanpora gelditzeko. Baina bertsotan egin nahi nuen, Tolosan jasotako estimu horri buelta bat eman. Txarrena da ez nuela lortzen hori sentitzea. Gainera, haserretu egin nintzen zortziko txikiko ehiztarien gaiarekin, eta hor nahastu ziren tentsioa, haserrea... Oso gutxi gozatu nuen, kartzelan pixka bat, baina jada dena kutsatuta zegoen. Bitxia da, Tolosako saioan askoz gusturago Elizondon baino, nahiz eta puntuek kontrakoa esan.

Elizondon agurtu egin zinen.

Bai, ez neukalako garbi, eta uste dut ez nintzela bakarra. Agurtu egin nahi nintzen; txapelketa hau niretzako garrantzitsua izan da, batez ere Tolosan sentitu nintzen maitatua. Eta ez nituen gauza horiek esan gabe utzi nahi. Izan balitz kanpoan gelditzea eta ganorabako agur batekin, pena handia edukiko nuke. Gero, egia esanda, puntuak entzun nituenean, harritu

nintzen. Baina beno, emandakoa jaso, txapelketa hori da.

Potoa, zu konturatu zinen edo norbaitek esan zizun?

Konturatu nintzen. Oharkabea egin nuen, baina eduki izan banitu hamasei errima, seguru aski ez zen gertatuko. Errima alu samarra da, gainera, arriskua egoten da normalki aditzeekin, eta zurrumurrua sentitu nuen. Ez nekien hitz hori izan zen edo beste bat, baina buelta eman nuenerako bai. Oso polita izan zen txalo zaparrada hori, oso espontanea, ez zelako izan saioa irabazteagatik-edo; ez dut uste errukia zenik ere motibo nagusia, beharbada pena-edo, jendeak nahi zuela nik gehiago egitea. Niri behintzat barru-barruraino iritsi zitzaidan.

Saio batetik besterako tarte hori nola bizi izan duzu?

Bizitza arrunta, entrenamenduak... Saioetara ez nintzen joan, baina, ikusi edo erdi ikusi, bai. Gero mezuak jasotzen dituzu, gogoratzen duzu orain lau urtekoa eta jendea hasten da kalkuluak ateratzen. Ez nintzen obsesionatu, baina, aurreko txapelketan ez bueltatzea erabaki nuenean, asko horregatik izan zen; ez zitzaidan gustatzen sentimendu hori. Jokin Urangak bota zuen oso ondo Elizondoko agurrean, ez ziola inori gaizki kantatzerik opa bera pasatzeko. Egia da baina ez da guztiz egia ere. Ez diozu inori opa, baina, beste batek egiten ez badu, zu bazoaz, eta horrelako gauzak pentsatzera iristen zara, logikoak direnak; ez dut nire burua horregatik zigortzen, baina ez zait gustatzen. Eta beharbada lehen ez nion garrantzirik ematen, baina, orain, ez zait gustatzen ezer. Nik ez nituen 725 puntu espero Elizondon, baina eman zizkidaten eta ezin ditut banatu, eta finalera pasako naiz horregatik. Hori da ez zaidana gustatzen txapelketatik, eta horrek garbiago uzten dizu azkena izango dela.

Azkena izango da, beraz?

Auskalo hemendik “X” urtera, baina orain, bai, dudarik gabe.

UNAI ITURRIAGA

Durango, 1974. Txapelketa Nagusiko

finalista izan da 1993az geroztik, seigarrena du aurtengoa. 2005ean buruz burukora iritsi zen Andoni Egañarekin.

Ane Arruti

Aurrekoak izan behar zuen azkena eta orain hau izango da. Uste dut txapelketak badauzkala mila alde on, baina norberaren jarrera bat eskatzen du, nik ez daukadana; eta jada erasaten didate gauza batzuk txapelketaren oinarrian daudenak. Zure lana neurtzea, onartzea zure ustez ona dena puntuatzen ez denean eta zure ustez hain ona ez dena puntuatzen denean... Ez daukat horretarako gogorik.

Aipatu izan duzu izena eman zenuela plazak mantentze horrek bultzatuta.

Bai. Aurreko txapelketan garbi neukan ez nintzela berriro joango, baina, ordutik hona, gauzak asko aldatu dira nire bizitzan. Bertso plazei dagokionez ere gora ez dute egin. Bertsogintza nire ogibidearen zati bat izan da, eta nahiko larri dago. Beste bizibide bat baldin banu, garbi esaten dut ez nintzela txapelketara joango. Egia da ez dela hori bakarrik. 16 urterekin hasi nintzen honetan eta fokua argipean egotera ohituta zaude, batez ere zure lagunekin hor egotera. Seguru asko ogibidearenak baino pisu gehiago du horrek inkontzientean, ez dakit, beldur nintzen. Uste nuen ezin nuela luxu hori permititu orain. Ez da plazak mantentzeagatik, egin nezakeen besterik eduki ez eta horri uko? Bai, egin nezakeen, baina badaezpada...

Baduzu damurik?

Ez. Hartzen diren erabakiak hartzen dira eta ez dago beste bueltarik. Beharbada, Tolosako txalo zaparrada horrek ohartarazi zidan banintzela nor edo jendeak estimatzen nauela, eta txapelketara joan ez banintz agian nire plazetan ez zela alde handirik egongo. Gauza onak ere badauzka txapelketak, BECen kantatzea gozada bat da.

Plazetan belaunaldi aldaketa sumatzen da, hala ere, finalean aurpegi berri bakarra sartu da.

Txapelketa beste kontu bat da. Puntu pilaketa bat. Plaza bai, asko aldatu da azken urteotan. Bai sartu dela jende bat, eta ez gazteak bakarrik. Garai batean esango

«Txapela irabazteko bi gauza behar dira: zuk nahi izatea eta herriak nahi izatea»

nuke gutxiagok egiten genituela plaza gehiago. Era berean, gutxiago horiek gehiago ginen. Asko aldatu da ere bertsolari kopurua saioetan. Bertsolari gutxiago behar da saioetarako, eta gurutzaketak ugariagoak dira. Txapelketan irudipena daukat esperientziak ere asko balio duela. Igorrek aipatzen du txapelketan egoten dela momentu bat zuk pentsatzen duzuna badakizula zer egin nahi duzun. Baina oraindik ez duzu hartu ostia hori konturatzen zarena txapelketa ez dela tokirik egokiena. Jarrera ondo dago, baina agian aldarte onena da kontziente izatea zer egin nahi duzun eta prest egotea ez duzula edukiko aukerarik zuk egin nahi duzuna egiteko. Eta hala ere, ez haserretu, eta pentsatu gustatzen ez zaizun gai horretan edo inoiz elkarrekin kantatu ez duzun bikote horrekin egin daitekeela. Gero, Gipuzkoan lau urtetik behin bakarrik egiten dira txapelketak, eta behar da esperientzia.

Esaten da txapelketak bertsolariak uniformizatzen dituela.

Ez nator bat. Denentzako gaiak jartzen dira, neutroagoak dira. Bertsolariak puntuak pilatu behar ditu, baina berak dakienetik egiten du. Nik uste txapelketan saritzen dela bakoitzak norbere estiloan ondo egiten duenean. Esango nuke txapelketan askoz gehiago uniformizatzen dela publikoa. Txapelketan txalotzen ditu gauza batzuk, eta, aldiz, handik hiru egunera bazoaz Etxerat-en saiora, eta jendeak ez du hori entzun nahi.

Zer aldarte duzu finalerako?

Joan nahiko nuke tenple onarekin, gehiegi estutu gabe, Tolosako jarrera horrekin, baina zaila da. Nahiko nuke gutxienez saio on bat egin, bai osotara eta bai lan bat behintzat polita, esateko Iturriaga gaur hemen egon da. Hori gabe BECetik pasatzea pena bat delako. Azken txapelketan, arratsaldeko kartzelakoarekin gelditu nintzen gustura, gogoan geratu da, eta niretzako nahiko da. Oso egun zaila da zerbait uzteko. Bik egiten dute aurrera eta han fokalizatzen da



Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS



«Ez diozu inori gaizki egitea opa, baina, beste batek egiten ez badu, zu bazoaz; eta horrelako gauzak pentsatzera iristen zara. Ez zait gustatzen. Lehen ez nion garrantzirik ematen, baina, orain, ez zait gustatzen ezer»

asko. Printzipioz ez noa txapela lehiazteko jarrerarekin eta nahi nuke horrek karga arintzea. Txirrindulari taldeetan ere egoten dira taldeburua eta taldeburuarentzat lan egiten dutenak, eta batzuk libre uzten dituztenak, ihesaldi bat edo harrapatzeko. Ba jarrera horrekin joan nahiko nuke, ihesaldi bat harrapatzera.

Zer gertatzen da txapelarekin? Ez al du inork nahi?

Ez dut uste inork nahi ez duenik, eta, dudarik gabe, emango balidate, jantziko nuke. Nik uste dut hori beti esan dudala, beraz, hor konpon, ez noa inori ezer leporatzera. Nik inoiz lortu dudan emaitza onena Andonirekin buruz burukora iritsi nintzenekoa izan zen. Badakit jendeak irabazi nahi duela txapela, baina badakit ere jendeak esaten duen horretan badagoela egia handi bat. Bertsotan ari gara, eta bat-batean gauzarik oinarritzkoenak zalantzan jartzen hasten zara, zortziko txiki bat osatzeko gai ote zaren, horrelako absurdoeta-

ra iristen zara. Denok dakigu zein erraza den gaizki egitea. Nik badakit batzuek irabazi egin nahi dutela, gure artean hitz egin dugulako inoiz. Baina ulertzen dut. Txapela nahi dute, baina, kristoren saioa eginda eta jendearen gogoan geldituta, bertsolariak oso konforme geldituko direla jakin badakit. Orain, batzuek gehitxoago esan zezaketela, ba bai. Begira niri zer pasa zitzaidan lehenengo saioan, Joni zer pasatu zitzaion berean... hori guztia oso presente dago. Beldurrak asko eragiten du inprobisazioan.

Lujanbiok txapela irabazi izanak, uste duzu posibleago edo zabalago egiten duela txapela irabazteko aukera?

Nik uste 2005ean jada Maialenen zurrumurrua bolo-bolo zebilela eta izan zitekeen txapeldun, onespén guztiarekin. Ez zuen bere eguna eduki. Jakina, orain Andoni ez dago eta posibleago da. Beharbada 2005ean Maialenez bakarrik hitz egiten

zen eta orain hiru-lau lagun ikusten ditut gutxienez txapela ongi eramateko moduan. Andoniri kentzea bazen, baina Maialeni kentzea ere bada. Maialenen txapela, txapel historikoa da. Berak esana du inork ez diola kenduko, hori berea da. Baina Maialenen ostetik txapeldun izateak ere edukiko du bere pisua. Hala ere, ikusten dut oso posible Maialen ez den bat izatea txapeldun, eta baita bera izatea ere. Gero, txapela irabazteko eman behar dira gutxienez bi gauza: zuk nahi izatea eta herriak nahi izatea. Txapelketa da, baina, bi gauza horiek ematen ez direnean, nik uste ez dela gertatzen. Denok sinetsi behar dugu, epaileak ere herria dira. Txapelaren zati handi bat, txapelketaz kanpo irabazten dela esango nuke. Beharbada horrek aukerak murrizten ditu. Nik herria oso lerratuta ikusten dut Maialen-Amets bikoan eta nik ez nuke bikote horretara mugatuko, baina egia da herriak hori ikusten duela. Eta badakizu herria soberanoa dela.

«Nire asmoa nire buruarekin bolantean egiten dudan lan horretara bertaratzea da»

Autoaren bolantean beti abestu izan du eta lane-rako joan-etorriak bertsotan egiten ditu. Orduan sentitzen du bere burua askeen eta ausarten. Finalean, bere buruari kantatzen dion moduan kantatu nahiko lieke BECen bildutako milaka lagunei: «Lortzen badut, ez dakit non amaitu dezakedan, beste lanaren arabera ere bade-lako, baina uste dut hobeto egingo dutenak izango diren arren, okerrago egingo dutenak ere izango direla». Oiartzunen egin zuen saioak konfiantza eta motibazioa sortu zizkion, baina bigarren saioak eta Unai Agirrerekin puntuetan berdinduta finalera pasatu izanak apaldu egin dizkio sentimendu horiek. Txapelketaren finalera, orde, motibazioa topatuta joan behar dela uste du, nork bere burua gehiago estutze-ko. Lan horretan dabil.

Unai Agirrerekin puntutan berdinduta lortu duzu BECera-ko pasea, zer-nolako sentsazio-arekin iritsi zara finalera?

Onartu behar dut uanean bertan gehiago eragin zidala; egunen joanean egoera hotzago ikusteko gai izan naiz. Alde batetik, pena handia sentitu nuen Unai finalaren ateetan geratu izana-rekin. Ibilbide luzea eta oparoa egin duen bertsolaria da eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finalean abestea zer den ez du probatu. Egunak pasa ahala erlatibizatu egin dut eta gogora ekarri dut orain zortzi urte ni geratu nintzela bi puntu eta erdira. Onartu behar dut, bestalde, mina emanagatik, poz handia sentitu nuela finalerako txartela lortu nuelako.

Zuretzat garrantzitsua zen BEC-en izatea?

Bai. Agian, niretzako pertsonalki baino inguruko jendearengatik izan da garrantzitsua. Txapelketa honetan jendearen begietara ni finalean izatea helburua zen. Aurreko txapelketan ez nuen halakorik sentitu. Badirudi aldi-ro koska bat igotzeko obligazioa dudala, korrikalari bat edo txirindulari bat bere markak ho-

AITOR SARRIEGI

Beasain, 1976. Informatika Ingeniaritza ikasi eta IKT dinamizatzaile eta irakasle gisa dabil. Egungo Gipuzkoako txapelduna da eta bigarren arituko da finalean.

maider.eizmendi@gaur8.info



«Badirudi aldi-ro koska bat igotzeko obligazioa dudala, korrikalari bat edo txirindulari bat bere markak hobetzer behartuta dagoen moduan. Nik ez dut hala ikusten, inoiz ez gara-eta puntu beretik abiatzen»

betzera behartuta dagoen moduan. Aurreko bidea dagoeneko egin duzunez, hortik aurrerako bidea dela egin behar duzuna uste du jendeak. Nik ez dut hala ulertzen, inoiz ez gara-eta puntu beretik abiatzen.

Presio handiagoaz aritu zara, beraz?

Aurreko txapelketan baino handiagoa bai. Hala ere, niretzat gogorragoa izan zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. BECen abestuta nentorren eta taula hartan egondakoetatik bakarra nintzen. Gutxienez finalean egoteko beharra sentitzen nuen orduan. Oraingoan, finalurrekoetan abestu eta saioa onak eginda finaletik kanpo geratu izan banintz, ez zen horren dramatikoa izango.

Nola gogoratzen duzu orain lau urteko final hura?

Nik oso oroitzapen ona daukat. Oso lasai joan nintzen, zer galdurik ez duenaren sentsazioarekin. Gainera, une historiko bat bizi izan nuen taularen gainean: Maialenen lehen txapela, Andoniren agurra... Gerora pentsatu izan dut gehiegizko lasaitasunak lehiakortasunean era-

gin zidala. Txapelketaren finalera joanez gero, bilatu behar da norberaren baitan halako motibazioaren bat nork bere burua gehiago estutzeko.

Hura topatzen zabilta?

Saiatu nahi dut. Agian, lehen finalerdiaren ondoren motibazio gehiago nuen, konbentzituago nengoen nire buruarekin; bigarren saioaren eta lehen aipatutako berdinketaren ostean, itzali egin zait nolabait. Badirudi gustura egon naitekeela finalean egotearekin. Saiatuko naiz, hala ere, aurrekoan aurkitu ez nuen puntu hori topatzen, bai nire burua bai nire aurretik geratu behar dutenak gehiago estutzeko.

Finalaren larrialdietan zortzi bertsolariek elkar babesten duzue, zein da Aitor Sarriegik zortzikotean duen egitekoa?

Agian, bertsotan baino umoretsuagoa banaiz hizketan, mugituago, urduriagoa. Isilik egotea ere kosta egiten zait eta hori zenbait egoeretan eskertzekoa da. Nik ez dakit nola ikusten nauten besteek ni, baina ni behintzat eroso sentitzen naiz zortzikotean eta hori niretzat garrantzitsua da.

Prestaketa lan mardula egin behar duzue, zein modutan aritu zara zu?

Txapelketarako prestaketan arlo desberdinak landu ohi dira. Alde batetik, prestaketa teknikoa egin behar da: errimak landu, doinuak barneratu... Urte mordoa daramatzat lan honetan eta arlo horretan hobetzeko askorik ez dudala uste dut. Agian, alferkeriagatik edo horrekin erabat konbentzituta nagoelako, alde teknikoari ez diot gehiegi erreparatu prestaketan. Horrek ere bai, noski, baina bertsolariak askotan ez gaitu teknikak bereizten; bertsotan ari denari nortasuna ematen diona gauzen aurrean duen jarrera eta iritzia dela uste dut. Ni saiatu naiz eguneroko bizitzatik ahalik eta gehien xurgatzen. Txapelketa datorrenean, nahigabea ia, txipa aldatu egiten da eta hasten zara inguruan, telebistan, Interneten... ikusi eta irakurtzen di-

tuzun kontuekin motxila betetzen. Niretzat garrantzitsua da irizpide batzuk ezartzea eta jarra batzuk hartzea gai desberdinen inguruan. Nik ahalegina, batez ere, arlo horretan egin dut, agian, bere garaian nire burua antzu xamar ikusten nuelako horretan eta ez horrenbeste teknika aldetik. Ez dakit oreka lortu dudan, baina intentzioa behintzat hori izan da.

Txapelketa honetan bereziki azkar ikusi zaitugu, bertsoa azkar marrazten zaizu?

Egia da batzuetan azkarregi ere abestu dudala bertsoa. Izan dira ariketak arrapaladan osatu ditudan eta patxada gehiagorekin hobeto egin nitzakeenak. Egia esateko, urduri joan naiz bi saioetara eta horrek ere eragin dit azkartasun eta ezinegon horretan. Bertsoa nahikoa azkar osatzen dudala ikusten dut eta bidea ikusitakoan abiatu egiten naiz. Beti izan dut sentsazioa, izan ere, denbora asko pasatzen nuela bertsoa osatzeko orduan. Txapelketa honetan saiatu naiz erabakitze horri garrantzia ematen ere. Erabaki ona hartzea da garrantzitsuena, baina erabakia hartzea bera ere bai. Eske ma osatu eta abiatzea ona da, badaukat konfiantza-eta ideia horri jarraipena emateko gai naizela. Finalera begira, hala ere, saiaturiko naiz azkartasun horri zertxobait eusten.

Motxila kargatzen egin duzun lanak, agian, bertsoa azkarrago marrazten lagundu dizu?

Nik uste dut baietz. Horrekin ez dut esan nahi egunerokoan izugarritzko begi kritikoarekin nabilela orain. Plazarako ere ariketa hori egitea ona eta beharrezkoa da. Azken batean, pertsonai zuzentzen gara, pertsonak gara eta pertsonekin elkarbanatzen ditugun esperientzietatik abiatzen gara bertsoak osatzeko. Alde horretatik, azken lauzpabost urtetan nire burua aberastu egin dudala uste dut.

Oiartzunen doinu berri bat erabili zenuen, baina ez ziren guztiz gustura geratu. Berriz ere entzungo dugu?



Jon URBE | ARGAKZI PRESS

Baliteke. Aspalditik neukan buruan Xabier Leteren abesti horren doinuak indarra zuela eta zerbait egin behar nuela. Aitor Furundarena eta bion artean egin genuen moldaketa. Oso doinu zabala eta luzea da eta nahiko laua. Arrazoiketa eta bukaera jakin batzuentzat erabat baliagarria da, baina, agian, beste gai batzuetarako, ez. Oiartzunen osatu nuen bertsoarentzako ez zen doinu egokiena, baina testu egoki bat sortzen asmatzen badut, zalan-tzarik gabe erabiliko dut. Nik joera daukat unean bertan erabakitzeko zer doinu erabiliko dudana; horregatik, beste askorekin batera poltsikoan hartuta eramango dut hau ere BECera.

Esna amesteko eskatu behar dizut orain. Finala amaitu da. Nola ikusten duzu zure burua?

Nire buruarekin bertsotan egiten dudana moduan jende aurrean bertsotan eginda ikusten dut nire burua, nirea den pintzelkada utzita. Etxetik lanerako joan-etorriak bertsotan egiten ditut beti eta konturatzen naiz bakarririk bertsoa osatzerakoan askoz ere libreago edo suizidago kantatzen dudala. Jendaurrean, ordea, zaila da hain suizida izatea eta maiz seguruago jokatzeko joera izaten dut. Horregatik nire asmoa nire buruarekin bolantean egiten dudana lan horretara bertaratzea da. Lortzen badut, ez dakit non amaitu dezakedan, besteen lanaren arabera ere

badelako, baina uste dut hobeto egingo dutenak izango diren arren, okerrago egingo dutenak ere izango direla.

Irakaslea zara, azken egun hauetan errutina mantentzen dituzu edo egunerokoa moldatzen duzu?

Mantendu egiten ditut. Bigarren aldiz abestuko dut finalean eta posible da berriz ez egitea, beraz, niretzat oso garrantzitsua da hitzordua. Hala ere, jakitun naiz BECen ez dela mundua hasi eta amaitzen. Badira beste mila gauza, asko zorigaiztoak, finalarekin duzun kezka erlatibizatzen laguntzen dutenak. Horregatik, errutina hori mantentzea niretzat garrantzitsua da; akaso, Aitor Sarriegi

bertsolariarentzat ez dakit, baina pertsonarentzat bai.

Errutina ahotan hartuta, finalerako goizerako errutinaren bat baduzu?

Askok. Saioetara gidatzen joatea gustatzen zait, horrek asko lasaitzen nau-eta. Ez naiz bereziki superstizioso, baina onartu beharra daukat arropa jakin batekin saio on bat osatu badut, errepikatzeko joera daukadala. Saioan bertan, berriz, ohitura handia daukat zapatei begira egotekoa, bertan topatzen dut nonbait nire inspirazioa. Gipuzkoako Txapelketan saiatu nintzen mania horiekin guztiekin amaitzen, eta, egia esan, ez zitzaidan gaizki atera. Berriz ere nirela itzuli naiz, ordea.

AZALA ETA MAMIA

Betaurreko moreekin begiratzuz gero, zein koloretakoa da txapelketa?

 **GIZARTEA** / amagoia.mujiika@gaur8.info

Errimak, iritziak, doinuak eta ertzak ondo zorrozuta igotzen da bertsolaria txapelketara. Bertsozalea ere bereziki estu jartzen da, asko exijitzeko jarrian. Bertsoa soka gaineko akrobazia da, eta txapelketa ez da itzulipurdi arriskutsuak egiteko plaza. Baina, parekidetasunari dagokionez, noraino fintzen dute batzuek eta besteek bista?

Saioz saio, betaurreko feministak jantzita eta arreta bereziarekin ari da jarraitzen aurtengo Txapelketa Nagusia Jone Miren Hernandez, EHuko Gizarte Antropologiako irakaslea. Ertz asko dauzka txapelketak. Batetik parte hartzaileak daude, bertsolariak. Bestetik, antolatzaileak. Eta, azkenik, entzuleak. «Interesgarria da fokua hiru arlotan jartzea, nahiz eta askotan nahiko zaila izaten den hori. Baina

saiatzena naiz», kontatu du Hernandezek. Izan ere, bertsoa komunikazioa da, bertsolariak eta entzuleak lotzen dituen soka, eta horregatik da interesgarria sokaren bi puntetan gertatzen dena ikustea. «Egia esan entzulearekin harritu egin naiz, onerako eta txarrerako. Esaterako, Amaia Agirrek bere amatasuna azalduz kantatutako bertsoekin izugarri hunkitu zen jendea, oso bero agertu zen berarekin. Baina berdin agertzen da bero bertsolari

Jone Miren Hernandezek, EHuko Gizarte Antropologiako irakaslea, betaurreko feministak jantzi eta arretaz jarraitu du txapelketa saioz saio. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

batek bere gizontasuna modu harroan nabarmentzen duenean ere. Horrek erakusten du gizartearen konplexutasuna». Parte hartzaileei dagokionez, herena inguru emakumezkoa izan da eta lehen fasean saio guztietan aritu da kantuan emakumeren bat. «Nik uste dut dagoeneko ez dela posible emakumerik gabeko txapelketa bat irudikatzea. Iruditzen zait aitortzen zaiela egiten duten ekarpena, eta, niretzat, emakumeak egon diren saioak interesgarriagoak izan dira, anitzagoak direlako. Gizonezkoak bakarrik aritu diren saioetan ere izugarri eskertu da aniztasuna; profil desberdineko gizonezkoak izatea, diskurtso, kantaera eta ikuskera desberdinak izatea», esan du. Txapelketak aurrera egin ahal makaltzen joan da emakumeen presentzia; «nire ustez kantidadak badauka garrantzia eta pena da. Berez gutxiago abiatu dira txapelketan eta are gutxiago iritsi dira azken faseetara, eta horrela ikusgaitasuna galtzen da. Baina, bestetik, oso profil

desberdinak ikusi ditugu, eredu oso desberdinak, eta hori oso baikorra da», jarraitu du. Bere esanean, azken urteotan eman den fenomenorik interesgarrienetakoa horixe da, «bertsotan emakume gehiago aritzeaz gain, profil gehiago agertu dira, eredu gehiago. Gizonezkoen artean ere gertatu da, baina are gehiago emakumeen artean. Miren Amuriza, Alaia Martin, Uxue Alberdi, Amaia Agirre, Jone Uria... gero eta aukera zabalagoa da, eta bakoitza batekin edo bestearekin identifika daiteke. Gauza asko tarteko, oso baikorra da, zailantzarik gabe». Urtetan emakume bertsolari askoren kexa eta kezka hori izan da, hain juxtu, denak zaku berean sartu izan dituztela. «Askok kontatzen dute saioetako antolatzaileek emakume bat behar zutenean, berdin zitzaizela bat edo bestea izatea. Kupoa bete behar zuten eta kito. Orain arteko bereizketa izan da Maialen Lujanbio –elitea ordezkatzeko zuena– eta besteak. Eta Maialen ez bazen, berdin zen besteen artean zein zetorren. Orain profil desberdinak nabarmentzen ari dira».

ESTRATEGIA DESBERDINAK

Bertsolaritza gizonezkoen mundua izan da nagusiki, eta bertara sartzeko emakumeek estrategia desberdinak baliatu dituzte. Maialen Lujanbio, egungo txapeldunak, urte asko darama plazan. Oso gazte hasi zen, eta bere bideari begira, bertsolaritzak ibili duen bideari buruzko pista asko jaso daitezke. «Maialen eta beste askoren estrategia emakume bezala desagertzea izan zen, nolabait inguruarekin mimetiko bihurtzea. Bazekiten ‘desberdin’ agertuz gero –eta garai hartan emakume bezala agertzea desberdin agertzea zen–, fokua berengan jarriko zutela gainontzekoek eta bertsotarako gaia izango zirela. Bertsolaritzan denak ematen du jokoa, dena da aldamenekoa zirikatzeak aitzakia. Gaur egun askok bestelako hautua egin dute, bestelako estrategia darabilte. Baina lehena ez zen hain erraza emakume ezaugarri jakinekin agertzea».



UMOREAREN MAMUA

Horren seinale da oraindik bertsozale askok aipatzen duela Oihane Enbeita izan zela lehenengoz minigona batekin bertsoan aritu zena. «Gauzak aldatu dira, baina bertsolaritzan emandako aldaketak beti irakurri behar dira gizartearen eman diren aldaketekin batera», segitu du Hernandezek.

Eta lehen begiratuan igartzen diren aldaketak norainoak diren jakiteko azalaren azpikoa ikusi beharra dago. Hartara, Hernandezek arretaz behatu du zenbait gairen aurrean bertsolariek hautatu duten bidea. «Horrek azterketa sakonagoa behar luke, baina denetarik ikusten da. Ikusten dira estereotipo klasikoak eta betiko jarrerak. Hala ere, bertsolarien aldetik orokorrean iruditzen zait ez dela edozer gauza kantatzen. Ia denak saiatzen dira politikoki zuzenaren marran ibiltzen. Egia da entzule bezala eskertuko nukeela pauso bat gehiago ematea eta arriskatztea, baina ulertzen dut txapelketan hori zaila dela».

Azala eta mamia ez dira, beraz, beti berdin-berdinak izaten. «Garai hau paradoxaren garaia da, ez bertsolaritzan bakarrik. Duela gutxi amaitu dugu gazteen artean ikerketa bat berdintasuna noraino iritsi den ikusteko, eta hor ere sumatu dugu fenomeno hau. Eta euskararen inguruan ere gertatzen da. Baloreen

Irailaren 14an eta 15ean, txapelketa hasi baino aste pare bat lehenago, 40 bat emakume bertsolari elkartu ziren Getariako Askizu auzoan. Bertsolaritzan bizi izan dituzten kezkek, egoerak, bizipenak eta hausnaraketak partekatu zituzten bertan. Beren mamuak identifikatu eta, hantxe, mahai gainean, jarri zituzten. Mamu horietako bat da umorea.

«Tradizionalki emakumeak urrun egon dira umoretik. Barre egin dute eta egiten dute, baina orokorrean ez dira barre-eragileak. Kontrakoa, umorerako objektu izan dira, rol zehatzetan bereziki: amaginarreba, neska zaharra, amona zaharra, emazte zorrotza, arreba *plasta*... Berrito topikoak eta estereotipoak». Jone Miren Hernandezen

ustez, emakumea ez da umorea egiteko hezia izan: «Emakumea txikitatik hezia izan da ardurak hartzeko eta zaintzarako. Eta denarekin arduratuta dagoenak, ez dauka umorerako tarterik edo aldarterik normalean. Mutikoen kasuan jolasean hezten dira denbora luzean, eta onartzen zaie despistatuak izatea, jolastiak, amestiak... Gero esaten da neskatoak berehala heldu bihurtzen direla. Baina hori gertatzen da sozialki arduaren banaketa oso desberdina delako».

Eta, bestetik, historikoki umorearen munduan ez da erreferenterik izan; «ez gaude ohituta emakumeak umorea egiten ikustera. Kostatzen zaigu barre egitea, eta, horrez gain, zertaz egiten dugu barre? Ikasi dugu barre egiten besteen umoreaz, eta,

besteak, gizonezkoak dira. Umore hori askotan entzun dugu eta ikusten dugu mundu guztiak barre egiten duela. Ereduak, erreferente desberdinak behar ditugu. Eta badago beste umore bat, Virginia Imazena kasu».

Aparteko kasua da umore «berdea» edo «pikantea» deiturikoa, egoera sexual baterako bidea ematen duena, eta bertso saioetan hain ohikoa dena. «Konbentzio soziala dirudi horrelako egoerek barrea sorraraztea, eta, beste aukera batzuk baztertuta, horretara jotzen dute bertsolari gizonezko gehienek. Egoera horietan nagusitzen diren pertsonaiak handikerietan ezkututzen dira eta emakumezkoek, normalean, bi irtenbide gertatzen zaizkie: handiagoak bota edota ihes egin», esan du Hernandezek.

«Nik uste dut dagoeneko ez dela posible emakumerik gabeko txapelketa bat irudikatzea. Eta, niretzat, emakumeak egon diren saioak interesgarriagoak izan dira»

«Sekulako lana egin behar duzu gizartearen inertziak deseraikitzeke eta hori zaila da, arrastaka eramaten zaituztelako. Berez da zaila, eta are zailagoa txapelketaren baitan»

inguruko gaietan nahiko orokorra izaten da; oso ondo barneratu dugu zer esan behar dugun, zein den diskurtso egokia. Hori aurrerapen bat da, baina fantasia moduko bat sortzen du, fikzio bat. Ze azal horren azpian begira hasiz gero paradoxa handiak ikusten dira. Gauza bat da pentsatzen duguna eta esaten duguna, eta beste bat gure benetakoa jokaera. Azkenean benetakoa aldaketak oso mantso joaten dira. Diskurtsoa nahiko erraz hedatzen da, baina benetakoa aldaketak mantoago doaz».

Dueta lau urte Maialen Lujanbiok txapela jantzi zuenean bategen baina gehiagok pentsatuko zuen bidea ibilia zegoela, eta berdintasunaren gailurra horixe zela, Euskal Herriko txapelak emakume baten burua janztea,

«baina ez, generoen arteko desberdintasuna luze eraikitakoa da, eta hori deseraikitzeak ere luze joko du», jarraitu du.

Hernandezek txapelketaren pauso guztiak jarraitu ditu eta atentzioa eman dio gaietan familiari lotutako kontuek izan duten pisua. «Oso ugariak izan dira familiari lotutako gaiak. Eta horietan sumatu dut erreproduzitu egiten direla dauzkagun familia ereduak eta horren inguruko diskurtsoak. Horietan, akaso, zerbait gehiago espero nuen, badakidalako bertsolariak argiak direla eta hausnarketarako joera handia daukatela. Agian jarrera probokatzaileagoak espero nituen. Baina, bestalde, badakit txapelketa ez dela horretarako toki aproposa», jarraitu du azalpena.



Gei-maitako elikagaiak
Alimentación de calidad superior

EUSKADI = BASQUE COUNTRY

Itzuli Jatorri
Vuelve al Origen

www.euskolabeltienda.com



hazi

Landa eta ibai inguruetan
gaspearen bidez
jarduntza erabiltzen

Cooperativas del Bidasoa
Vino cooperativo controlado
del medio rural y natural

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



LARRE-GAIN
sagardotegia

Urte osoan
sagardoa botiletan
salgai

Larre-Gain Baserria

Izan ere, txapelketan gertatzen dena ezin da estrapolatu bertsolaritzara orokorrean, txapelketa oso plaza berezia baita. «Batuetan iruditzen zait plaza ona dela egoerak iraultzeko eta mezuak zabaltzeko. Eta beste batuetan ezetz iruditzen zait. Denbora laburrean, gai bati erantzuten, txapelketaren tentsioarekin... aurretik sekulako lana egin behar duzu benetan nahi duzuna esan ahal izateko egoera horretan. Sekulako lana egin behar duzu gizartearen inertziak deseraikitzeke eta hori zaila da, gizartearen inertziek sekulako indarra daukatelako eta arrastaka eramaten zaituztelako. Berez zaila da hori egitea, eta are zailagoa txapelketaren testuinguruan».

Lanketa pertsonala eta eskarmentua behar-beharrezkoak dira bide horretan abiatzeko. «Niri oso zaila iruditzen zait. Maialen Lujanbiok, adibidez, eskarmentu handia duela iruditzen zait. Segur aski askotan ikusi du bere burua deseroso zenbait egoeratan, egoera horien hausnarketa egin eta horietatik ikasi egin du. Alaiari ere ikusi diot halakorik; lehendik pasatako egoeretatik ikasitakoa baliatu du txapelketan. Azkenean emakumeak ikasten joan gara, eskarmentua pilatzen joan gara. Gaur egun emakume bertsolarien artean badago harremana, badago saretxo bat, esperientziak partekatzen dituzte... eta hori oso garrantzitsua da».

HIRUGARREN FOKUA: ANTOLATZAILEA

Eta hirugarren fokua antolatzailearengan jarri du Hernandezek. «Bertsozale Elkartean badago kezka, interesa eta nahia. Eta elkartearen baitan berdintasunarekin oso konprometituta dauden pertsonak daude. Txapelketa gauza handia da, arlo asko mugitzen dituena, eta pentsatzekoa da ez dela erraza arlo guztien gainean egotea. Baina kezka badago eta etengabe galdetzen dute gaiaren inguruan. Hori oso baikorra da. Oso jende dinamikoa da eta jarrera oso ona daukate. Parekidetasunaren alde dagoen gogo hori oso baikorra da», esan du.



Kristina Mardaras 1986ko finalean, Donostiako Belodromoan, bere oroigarria jasotzen. Juntxo EGAÑA | XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

KRISTINA MARDARAS: «JAKIN-MIN HANDIA SORTZEN ZEN, JENDEA ZER ESANGO OTE NUEN ZAIN EGOTEN ZEN»

Txapelketa Nagusian parte hartu duen lehen emakumea da Kristina Mardaras (Iurreta, 1948). 1985-1986ko txapelketa zen, Kristinak 38 urte zituen, bi seme-alaba txiki etxean eta irakasle lanetan zebilen. Durangoko bertso eskolan zebiltzan bera eta senarra, Justo Alberdi, eta eskolako hainbat lagunekin batera txapelketan parte hartzeko izena eman zuten.

«Bertso eskola baten inguruan sortua naiz, Durangoko bertso eskolan. Bertan beste emakume batzuk ere baziren, baina ez ziren plazaratu. Mugimendu feminista hasi berria zen, indarra hartzen ari zen. Eta nire kasuan bertso eskolaren babesa nuen, baita senarraren babesa ere. Bertso eskola berean aritzen ginen eta zenbait plaza elkarrekin eginak genituen. Eta txapelketa horretan ere elkarrekin parte hartu genuen». Ordura arte Txapelketa Nagusia Euskaltzaindiak antolatzen zuen, baina haustura eman zen eta sortu berria zen bertso elkartek hartu zuen txapelketaren ardura. Hartara, bertsolari hasiberri askok eman zuten izena txapelketan, elkarrekin babesa emate aldera.

Ordurako plazetan ibilia zen Mardaras, eta, kantuan beti emakume bakarra bazen ere, dagoeneko agertzen hasiak ziren lehen emakume gai-jartzaileak. «Bertso eskoletan Arantzazu Loidi bertsolaria ageri zen, neskato gaztea», zehaztu du.

Mardaras bertsolari bezala agertu izana ez zen oharkabea pasatu, batzuentzat pozerako bidea eman zuen, eta, beste batzuentzat, liskarrerako. «Bertsoak ondo egiten nituen, baina hasiberria nintzen eta teknika ez nuen erabat menderatzen. Jakin-min handia sortzen zen, jendea zer esango ote nuen zain egoten zen eta txalo zaparrada beroak jasotzen nituen. Denetarik egon zen, hala ere, kezka ere sortzen nuen beste bertsolariengan. Ordura arte ohituta zeuden emakumeen gaia oso modu arinean lantzen eta ni han egoteak muga batzuk jartzen zizkien. Arazo bat ere banintzen beraz; hori sumatu nuen. Gehiago zaintzen zuten zer esan edo nola esan. Ni ez nengoen mugimendu feminista batean sartuta, baina emakume bezala oso sentsibilizatu nengoen eta dagoeneko adin bat banuen edozer gauza esaten ez uzteko, eta erantzun egiten nuen. Egia esan, nahiko errespetuz portatu ziren orokorrean, nahiz eta eman zen egoera deserosoren bat edo beste. Hala ere, ni saiatzen nintzen beti emakumearen gairen bat aipatzen tartean. Nire ahotsa baliatzen nuen», kontatu du.

Ordutik joan dira urte batzuk eta aurtengo txapelketan emakumeen parte hartzea polita izan da. Kristina Mardarasek oso gertutik jarraitu du txapelketa. «Niretzat izugarri pozgarria da hainbeste emakume ikustea txapelketan.

Kalitate handiko saioak egin dituzte, maila oso ona daukate eta hori pozgarria da. Eta hor daukagu Maialen Lujanbio. Pozik nago oso».

Bera oholtzan gizon artean aritzen zen garaian garbi zuen presentziarekin ez zela nahikoa, eta bere ahotsa entzunarazten saiatzen zen. Orain ere berdin, emakumearen presentzia areagotu egin da, eta, gainera, oso ahots propioz oholtzaratu dira. «Lehen ageri ez ziren iritziak, sentimenduak, ikuspuntuak eta gaiak agertzen dira orain, bai emakumeen ahotik eta baita gizonezkoen ahotik ere. Gizonezkoek ere pertsona izaeratik abesten dute gehiago eta hori oso pozgarria da. Duela urte gutxira arte pentsaezina zen txapelketan agertu diren ikuskera batzuk entzun ahal izatea».

Kristina Mardarasek ustez, bide onean doa bertsolaritza; «ezerezetik gaur egungora saltoa handia dela uste dut. Nik presa handirik ez nuke hartuko, baina egin beharreko lana da».

2009ko txapelduna emakumea da, datu garrantzitsua, noski. «Ikusten ez dena ez da existitzen. Hor dago Maialen, Euskal Herriko txapelduna. Emakume bat txapeldun izatea posible dela ikusi dugu. Garrantzitsua da presentzia, presentziak bakarrik ja errealitatea egiten duelako. Eta emakumeak presente daude plazetan, nolako mailarekin eta kalitatearekin gainera», bukatu du.

Ihes egiten ez duten bertsoak

Jon Garmendia

Ez dakizu une zehatza noiz izan zen, baina bertsoa zure buruan sartu zen oharkabea, eta bihotzaren errima-tegian itsatsita geratu zitzaizun orduz gero. Seaskan irudikatzen duzu sarri, amak goxo-goxo kantatzen zizun memento haietan, edo agian, zuen baserri zaharrera, aitonak eta aitak etxera ekarri ohi zituzten garaiko bertsolariak entzun eta gero. Baina bertsoaren magiak sorgindu egin zintuen, eta ordutik honat zortziko txikiak handi egin dira zure bizitzan. Jolasa, plazera eta gozamenaren eman dizkizu bertsoak, eta zure hazkuntza eta hezkuntzaren bidean mugarri sendo bat izan da hitzak doinuaren pean adierazteko arte zahar hau, mundu berri bat irudikatzeko baliatu duzu, amets berriak eraikitze, sentimenduz eta arrazoiz betetzeko denboraren ibilbidea.

Batzuentzat musikarik gabeko munduaren existentzia posible ez den gisa, zuretzat bertsoak gabeko munduak ez du etorkizun argisurik. Honela, bertso idatziak irakur-

tzen zenituen tipidanik, tarteka haien parekoak izan nahi zutenak idatzi ere bai, bertso zaharrak nahinoiz entzuten zenituen, eta plazetan nahinon entzuten zenituen koblakariak; hirukoterik totemikoena osatzen duten elementuek –bertsolariak, lekuak eta entzuleak– memento hori errepikaezina bihurtzen duten lekuetan, han zeunden zu.

Baina ihesari eman zenion, zure sorteterrria familia eta lagunak utzi behar izan zenituen atzean, eta bizi berri bati hasiera eman, urrun, zuk maite zenuenarengandik urrunegi. Bertsoak zure belarrietatik desagertu ziren, herri handiaren herri tipietan ez zinen gehiago ageri, eta bertsolaritzak bere bidean aurrera segitu zuen, saioak areagotzen joan ziren, entzuleak pilatzen, artea ikuskitzen bilakatzen, ia fenomeno soziala bilakatzera. Baina zu jada horren ikusle zinen, ez entzule. Eta basamortuko zeharkaldia iruditzen zitzaizun garai hura, harea gorrienaren idorrean eguzkirik gabeko egunen joan-etorria. Txapelketek esker etendako hari lodia

hari mehe izan zen halere, bertsoei lotuta bizitzeko manera bat, eztabaidagarriak izan daitezkeen arlo anitz izan baitezakete txapelketek lehiakortasunaren bidean, baina haiek ukan dute gaitasuna muga guztiak zeharkatuz zuregana heltzeko, maite duzun mundu horren euskarririk maitekorrena izan dira zurean.

Bizi borrokatzen segitu zenuen, itxaropentsu beti, bazenuelako helduleku aski hutsaren sentsazioa zeukan barnea betetzen saiatzeko. Eta tresna berriak ailegatu ziren, Internet heldu zen zure eskuetara; isolamendua hautsi eta urruntasun harresiak pitzatu ziren, galdutako harreman anitz berreskuratzen zenituen, baita bertsoaren munduarena ere. Eta gaur, zu izan zaitut gogoan, zu bezala dauden euskal bertsozale anitz, heien sorteterritan falta diren euskal iheslari politiko anitz, zuk, biharko eguna errepikaezina den zerbait bezala biziko duzulako herrialde urrun horretan, eta BECen bazeunde bezala sentituko zarelako. Etxean. •

Bertsolaritzaren kontra

Koldo Almandoz

Nire belaunaldiko haur askori gertatu zitzaion moduan, gurasoek euskalduntasunaren trinitate santua aukeratu zuten nire heziketaren osagarri gisa: euskal dantza/eskusoinua/bertsolaritza. Beraz, garai batean, guraso abertzale orok desio zuen aingeru-haur horietako bat izan nintzen.

Negu gorrian eta gurgildun karrotxoaren laguntzaz, eskusoinu maleta handiarekin espaloietako kosketan ez aurrera ez atzera geratzen nintzen garai hura da nire haurtzaro traumarik latzenetakoa. Dantza klasetara gusturago joaten nintzen. Neska ugari eta ni beti ikaskide pare batekin maiteminduta. Ballet ariketak egitera azaltzen zen mutil bakarrenetakoa nintzen, baina bi-daietara, entseguetara azaltzen ez ziren nagusiak soilik joaten zirenez utzi egin nion


dantzazeari. Bertso eskolan ez nuen gehiegia iraun. Ikastolaren antz handiegia hartzen nion. Baloia zuhaixka batzuetan ezkutatu eta eskola hasi bezain pronto edozein tontakeria egiten genuen klasetik kanporatuak izateko.

Ez naiz inoiz bertso txapelketa edo bertso afari batean izan. Ez nau bertsolaritzak erakartzen, beste askoren artean, medizina, informatika, budismoak, kafe zaporeko izozkiak edo idazle pedanteen bakarriketek erakartzen ez nauten moduan. Bitxia da, ordea, inork ez didala beste horiengan dudan interes ezagatik artikulurik idazteko eskatu. “Intelektual”, idazle eta bertsolarien artean piztutako polemikak izango du zerikusirik. Alferrikako kontuak. Ke gortinak. Pieza berarengatik borrokatzen duten ehiza txakurren liskarra. Urteetan, herri honetan, bai ba-

tzuek eta bai besteek denetarako balio izan dutelako: gidoigintza, telebista, kazetaritza, kultur kudeaketa... Eta daukaguna, onerako eta txarrerako, horren ondorioa da.

Aita bertsozale amorratua nuen. Nik ez nuen zaletasuna heredatu, baina gustatu ez arren, niri ere, Anoeta pilotalekuan Xalbadorrek bota zuen bertso hura entzutean, edo Lujanbiok BECen irabazi zueneko irudiak ikustean, emozioa eztarrian korapilatzen zait. Gauza bera gertatzen zait Pello Ramirezek eskusoinuaz haize oihalak marrazten dituen edota Asier Zabaletaren dantzak eskultura iragankorrak zizelatzaren dituen. Bertsolaritzaren kontra idatzi beharreko artikulua honi esker deskubritu dut hainbat jardura ez zaizkidala gustatzen, hain zuzen ere, nire frakasoaren ispiuaren aurrean jartzen nautelako. •

Bertsoari
Txapalketa
Nagoria 2018



Herriz herri, txokoz txoko
euskal herrian barrena
bertsoari eta euskarari
zor dieguna ematen.
euskaraz... naturaltasunez.


LABORAL
kutxa

